

ARGIA

AMILLUBI PROIEKTUA

Lur kolektibo bat, etorkizuneko elikadura bermatzeko

24-29. orrialdeak

2850 | 2023/12/10 | 4,00 €



**Gizartea gelditu
zaintzaz
hitz egiteko**

4 | GREBA FEMINISTA



**Konfrontazio
giroan jaio da
Hezkuntza Legea**

30 | HEZKUNTZA



**Negu hurbilak:
euskal militante baten
ezinegona, zinemara**

42 | KULTURA



**Dibertsioa
Baliokin**

UMEEN GABONETAKO PARKEA

ABENDUAK 16 - URTARRILAK 7



EROSI
ZURE SARRERAK
ONLINE

**B!
E!
C!** **BILBAO
EXHIBITION
CENTRE**

EXPOSSIBLE!

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | MIKEL ZURBANO
- 20 | MALORES ETXEBERRIA
- 21 | ZIGOR ETXEBURUA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 36 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
PAULA SANTOS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


4 | GREBA FEMINISTA OROKORRA LISERITZEN

Azaroaren 30a egun beteak izan zen, milaka herritar busti zituen. Kaletik egin zuen jarraipena ARGIAK, eta egun horren historikotasunaz kontzienteara gara denbora igaro ahala. Egundak hartako argazki galeria eta irakurketa jaso ditugu.

DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Lobbygintza toxiko bat dago glifosatoa baimentzeko europaren erabakiaren gibelean

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | LEO BUERIBERI

"Gauzak esploratzea gustatzen zait, nora helduko naizen jakin gabe"

Danele Sarriugarte

30 | HEZKUNTZA

Helburuetan kale eginda erditu da Hezkuntza Legea

Mikel Garcia

42 | KULTURA | "NEGU HURBILAK" FILMA

"Euskal gatazkak gure izaera baldintzatu badu, nola ez dugu gaia jorratuko?"

Lander Arretxea

47 | KULTURA | BTN2.0

Bideopodcast erdi serio bat-edo

Gorka Peñagarikano

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaitz Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kristalaren bi aldeak

Beste herrialdeetan bezala, Euskal Herriko zainketa sistema garatu da kapitalismoaren beharraren arabera. Zaintzeko beharrak ezin dira bermatu merkatuaren mende dagoen sistema batetik, are gutxiago merkatutik bertatik. Beraz, gizarte-ordena batere aldatu gabe, nekez lortuko dugu zerbitzu publikoek pertsonak eraginkortasunez eta duintasunez zaintzea. Munduko ipar globalizatuko emakumeok inposatutako zaintzarako ardura beste emakume batzuei pasatu diegu. Horrela emakume pobreek, arrazializatuek eta baztertuek zainketa-krisiaren faktura ordaintzen dute beren denbora, indarra eta bizitzarekin. Emakume batzuek kristalezko sabaia hautsi dute, baina beste emakume batzuek kristal zatiak garbitzen jarraitzen dute.

 MATI ITURRALDE

 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



ENPRRESARIAK
EMAKUME
MISERIAREN

ZARA

LANGWEON
VERA ZULE

A30
BORR OVAR



GREBA IRUDITAN

PELLO MAUDO / DANI BLANCO ARGIA CC BY-SA





Zaintza deserosoa da, greba ere bai

LEIRE ARTOLA ARIN

Langile guztiok dakigu greba orokorra nola egiten den, eta zer ondorio dituen. Baina ez genekien greba feminista orokorra egin zitekeenik, ezta eraginik izan zezakeenik ere. Mugimendu Feministak konplexuak alde batera utzi eta erakutsi du zaintza jendarte osoaren auzia dela eta ez “emakumeen kontua” edo “feministen aldarria”, eta badela garaia zaintza sistema iraultzeko eta, batik bat, gizonek eta instituzioek ardura hartzekoa. Mugimendu Feministak erakutsi du greba feminista orokorra posible baino gehiago, beharrezkoa zela. Nahiz eta batzuek ez duten ulertu –nahi izan–.

Eusko Jaurlaritzak azpimarratu du zein jarraipen apala izan duen grebak, batik bat Osakidetzan. Beste behin, entzungor egin die milaka eta milaka pertsonen oihuek egin dizkien interpelazioei, EAJk jarraitu du zaintzaren aldeko diskurtso hutsala eta zuritzailea egiten, eta greba gutxietsi nahi izan du. Bide beretik jo dute beste hainbatek ere, esanez greba orokorretan han-hemengo komertzioak itxita egoten direla eta mundua gelditzen dela. Ez, azaroaren 30ean ez da mundua geratu, baizik lurrikara sortu da Hego Euskal Herriko herri, hiri eta landa ere-

muetan. Zaintza publiko komunitarioaren eta berehalako aldaketaren beharrek kaleak astindu dituzte, eta Mugimendu Feministako kideek denbora luzeko hausnarketan –eta eztabaiden– ostean proposatutako greba eredia arrakastaz jendarteratu dute goizean goizetik.

Zergatik kostatu zaie ulertaraztea zaintza eta bizitza erdigunean jartzeko greba egin behar zela? Zergatik izan dituzte oztopoak eta errezeloak, Martxoaren 8ko emakumeen grebetan izan ez dituztenak? Greba feminista orokorrak deserosotasunak piztu ditu alde guztietan, barru zein kanpo. Besteren artean, Mugimendu Feminista 2018 eta 2019ko grebetatik harago joan delako: M8etan emakumeen eskubideen aldeko askotariko eskaerak egin izan dituzte, baina A30ean ondo findutako Herri Akordioa betetzeko eskaera izan dute ardatz. “Desagerrarazi etxeko langile egoiliarren erregimena, utzi zaintza pribatizatzeari, utzi bertan behera Atzerritartasun Legea, bermatu etxebizitza eskubidea...”. Neurri jakinak bezain egingarriak dira, borondatea egonez gero. Eta deserosoa da sentitzea fokua norbere gainean jartzen dutela, patriarkatuari izen-abizenak jartzen dizkietela, bai erakundeetan bai etxeetan.

Deserosoa da, baita ere, feministek onartzea grebak badituela hutsune batzuk, “ez gaude denak, etxeko langileak falta dira” oihukatuz betetzen ez direnak. Mugimendu Feministarentzat ere erronka izan baita greba antolatzea, eta argi geratu da eragile guztiak ez daudela konforme Herri Akordioarekin edota hura jendarteratzeko moduarekin, prozesuan parte hartu nahi izan ez dutelako edota kanpo sentitu direlako. Ez dago zalantzarik Mugimendu Feministak kritikak entzun dituela, eta aurrez egin bezala, hutsuneak lantzen jarraituko duela.

Baina azaroaren 30a mugarri izan da, eta hori Mugimendu Feministari esker izan da. Erronka gainditu dute antolatzaileek, eta greba egiteko modu berria erakutsi digute. Egun osoko antolaketa eredugarria izan da: pike-tetan ederki neurtu dute nor geldiarazi eta non eman azalpenak; interpelazioak toki estrategikoetan egin dituzte, eta hitza hartu dute zaintza lanetan protagonista diren zaintzaile arrazializatuak zein zaharren egoitzetakoek; manifestazioetan indar erakustaldia egin dute, ez baitu edonork biltzen hainbeste jende euripean. Hilabete askotako aurre lanketa plazaratzeko eguna izan da, eta sindikatu eta eragileekin egindako lanaren fruituak ikusi dira. Halere, garrantzitsuena zera izan da: azaroaren 30a antolakuntzarako, politizaziorako eta saretzeko eguna izan zela.

Pandemiaz geroztik itzalita zegoen Mugimendu Feminista antolatuta eta jendetsu itzuli da Euskal Herriko plazetara. Eta greba egunetik harago, lorpen nagusia izan da herriz herri ehundutakoa: zaintzaren kontzeptuaren inguruko eztabaida zabaldu dute, militanteak aktibatzen dituzte, eta talde mistoak osatzeko ausardia izan dute; modu berriak probatu dituzte, hanka sartzeko beldurrik gabe. Jada ezinezkoa da A30eko aldarriari entzungor egitea, beraz, senti dezagun deserosotasuna: “Hau hasi beretik ez da egin”. ●



Eta, agian, gainera



UXUE APAOLAZA LARREA

Aurrekoaren zolatik ura sartzen hasten denean erosten du kirol zapatila pare berria. Kirol zapatilekin jantzi daitekeen arropa erabiltzen du. Txandala munduko arropa erosoena dela defendatzen du. Arrazoi du, noski. Badu bestelakorik. Armairuan. Gogoan dituzun janzki guztiak armairuan ditu. Jantzen duenak heze usaina dauka. Aste honetan ez ditu galtzak aldatu. Begizuloak ditu. Beti dirudi edo jaiki berria, edo hoge porro erreta. Umore gorabeheratsua du. Azkazalak zikin dauzka. Bakoitza neurri batekoak. Zaharragoa dirudi. Ilea galdu du. Ilea urdindu zaio. Azala... azala. Bileraren erdian jostailu baten doinua atera da bere motxilatik. Ezin du proiektuko bileraren ondorengo potea hartu. Bazkaritik kafea hartu gabe alde egiten du. "Zaindu!" esanda, barre egiten du. Ez dio email horri erantzun. Ezta horri ere. Eta biak ziren garrantzitsuak, beren modura. Eta ez da ez zaizkiola inporta, ez ditu erantzun. Agian, ez ditu gogoan ere, momentuan buruan beti bezain eraginkor jardutea besterik ez bazuen ere, bai afektiboki, bai profesionalki. Gerturatzen da zuregana, baina zuk ezin duzu, ezinezkoa da berekin geratzea, beti bukatzen du hitzorduak bertan behera uzten. 30eko grebako arratsaldekoa kasu, umeak sukarra omen zuen. Beti ondo dagoela esaten du. Izugarri argaldu da. Izugarri loditu da. Ematen du jada ez diola ezerk eragiten, baina bat-batean zerbaitek bai, eta negarrez hasten da, edo dantzan, edo zerbait okerragoan. Beti badoala dirudi. Batzuetan beste nonbait dirudi, batzuetan beste nonbait dago hizketan ari denean ere. Ez da isiltzen, ea horrela ez duten ikusten. Zigarroa, kafea, txikleka, boligrafoa... irauen behar ez duen zerbait beti eskuan (ez dauka termorik, kantineplorarik, agendarik, aterkirik... ez galtzeko arreta behar duenik). Beti darama telefonoa soinean. Inoiz ez dio telefonoari erantzun nahi. Deitzen diozuetan ia inoiz ez du erantzuten. Aulki erosoagoa eskainita ere, deserosoan geratzen da lehenago bukatzeko. Ezin izan dio izaki kultural baten moduan bazkaltzeko denborarik eman. Baina zerbait dakar hortzetan. Justu iristen da, paperik gabe, eta kosta egiten da bere begiradara iristea, ihesean ari da, barkamen eske bezala. Ziur zerbait ahaztu zaiola. Ez dago ziur hurrengoan etortzeaz gogoratu den, eta zuk ere, nahiz beti etorri den, zalantza egiten duzu. Ingurukoei laguntzeko edozein aitzakia baliatzen du, badakielako ez diela deituko. Motxila ezin ordenatu, paperez eta gauzaz beteta utzi du, eta beste poltsa bat hartu; poltsa ezin ordenatu, beteta utzi du, eta beste motxila bat hartu;... Ohartu zara segundo batzuek ez dizula entzun. Orain askotan egiten du. Lehen koma bat galtzen ez zuen bera da, eta segundo batzuek, ez dizu entzun. Umea uztean lasterka irten behar du, jasotzean ez dauka inorekin hitz egiteko gogorik, eta poste baten gainera botatzen du gorputza, eta zapatilei begiratzen die. Hurrengo astea beti hobea izango da. Hurrengo astea garaiz hasiko du. Hitz ematen dizu. Aspaldi ez du oparirik egin. Barre egingo luke hori irakurrita. Orduan zer gertatu da bere denborarekin. Ezin da bere ondoan egon larritasunik sentitu gabe. Inork ez du gehiegi hurbildu nahi. Oinazprietan beldurra sentitzen du gelditzen bada. Estropezu egin, eta gainera eroriko zaizula dirudi. Ez zorrotzegiak izan; ziur asko, norbait zaintzeaz ahaztu da. Eta, agian, gainera, ez du inork zaintzen. ●

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Greba



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Baldintzak, ueña, adostasunak... Gauza asko dira aztertu eta kontutan hartu beharrekoak greba orokorra deitzera-koan. Gehiago greba feminista bada, ez dago inon idatzita hori zer den, eta hala izanda ere, badakigu zein zaila den idatzietatik plazara, eta plazetatik lantokietara jauzi egitea. Baina egin dugu! Euskal Herriko Mugimendu Feministak prozesu bat irudikatu eta marraztu du. Oinarritzko adostasunak eraiki ditu.

Pandemian funtsezko lanak zirela aldarrikatzen genuen, eta gaur, zaintza lanak berrantolatzeke zein sistema behar dugun da jokoan dagoena. Instituzioek ezin izan dute eztabaida hori saihestu. Erdigune berri bat sortu, eratu eta sendotu dugu. Erdigune deserosoa zaintzei bizkarra emanez bizi denarentzat, zaintzak negozio bezala ikusten dutenentzat, eta oso deserosoa negozio hori administrazioetatik bideratzen dutenentzat.

Eta zaintza erdigunerara ekarrita, zaintza lanak jarri ditugu eztabaidaren erdian, zaintza da eztabaidaren objektua; eta hala egin ditugu, besteak beste, zaintzako langileak subjektu. Ez dago zaintza lanak berrantolatuko dituen sistema berriaren eztabaida egiterik zaintza langileen protagonismorik gabe.

Baby boom belaunaldiaren premiei larritasunez begiratzen diotenean, zaintzaren borrokari zentraltasuna ematea, asmatzea da, bai horixe. Baina premia horiei bidezkoa den sistemarekin erantzutea, prozesu baten emaitza izango da: prozesu horrek ekarri behar du zaintzak gaur behar dituztenen, zaintza lanetan gaur ari direnen, eta bizitza osoan zaintzaile izan arren mezezi eta irabazitako eskubiderik gabe jarraitzen dutenei zor zaiena aitortzea eta ordaintzea. ●

Gazteak eta emantzipazioa

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

1 8 urtetik 35 urte bitarteko Hego Euskal Herriko sei mila gaztek bete dute Gurea Geroa plataformaren inkesta, era birtualean, joan den udaberrian. Jasotako datuen arabera, %56a emantzipaturik bizi da eta gainontzeko %44a, aldiz, familiarekin. Emantzipatzeko batez besteko adina 25 urtekoa da –oro har emakumeak dira goiztiarrenak–; datu horrek ezbaian jarri du Eusko Jaurlaritzaren menpekoea den Gazteen Euskal Behatokiak emandako zifra, 29,7 urtekoa. Txostenaren egileen arabera, ezin izan dute identifikatu ezberdintasun horren jatorria.

Errepara diezaiogun emantzipaturik bizi direnen pertsonen profilari, zeina 18 eta 35 urte arteko lagina hartuta, aipatu bezala, erdia bizi den emantzipaturik: %40 pisukide batekin edo gehiagorekin bizi da, %35 bikotekidearekin eta %22 bakarrik. Gurasoen etxetik alde egin duten gazteen kasuan, nabaria da sortze-etxetik egungo etxera dagoen distantziaren afera. Laginaren hamarretik hiruk hoge minutura baino gutxiagora dute gurasoen etxea; adinari erreparatuta, urrunen bizi direnak 20 eta 25 urte artekoak dira.

Ez emantzipatzeko arrazoen artean, gaitasun ekonomiko eza da nagusia: emantzipatu ez diren gazteen %86k esan du hori –20 eta 25 urte bitartekoen artean, hamarretik bederatzik–. Iritzia eman duen bitik batek esan du bere egoera ekonomikoa “txarra” dela. Gazteek soldataren ia erdia bideratzen dute etxebizitza ordaintzera.

EMANTZIPATU BAI, AHAL BADA ETXEA EROSITA

Inkesta bete duten gazteen artean, bost urteko epean ia-ia guztiek emantzipaturik ikusten dute euren burua. Areago joanda, alokairuaren aukera baztertu nahi dute hamarretik zortzik. Txostenean jaso dituzte hainbat gazteren hitzak, eta oro har salatzen dute bideraezina dela etxebizitza bat erostea, eta alokairura jota, unean ordaintzeko erosoagoa bada ere, gero eta erronka zailagoa bihurtzen ari dela.

Inkesta bete duten hamarretik zazpik ez dute ideiarik ere zer den Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programa, eta erakunde beraren beste laguntza eredu bat, etxebizitza librea erabileran ematen dituen, soilik %7k ezagutzen du.

Gurea Geroa programako kideek aipaturiko emaitzak eta gehiago azaldu dizkiete Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoei. Emantzipazio nahia “hain agerikoa” delakoan, plataformak uste du abian jarri behar direla politika zuzenak. Etxebizitzaren eta emantzipazioaren auziari aurre egiteko, horregatik, 100 proposamen jaso ditu txostenak. Besteak beste, honako eskaera hauek egin dituzte: alokairuen prezioa eremuka arautzea, pisu turistikoak neguan gazteei alokatzea, prezioak gelaka antolatzea eta etxebizitzaren tasa jaistea. ●

MOTZEAN

Dubain egin dute aurtengo COP28, besteak beste trantsizio energetikoa azkartzea eta isurketak 2030erako murriztea helburu. Biltzarraren presidentek adierazi du, baina, berotze globala murrizteko alternatiba ez dela erregai fosilen erabilera amaitzea.

Euskararen Egunean, euskararen unibertsalizaziorako “doakotasuna eta baliabideak” ezinbestekoak direla gogoratu du Euskalgintzaren Kontseiluak.

Julio Soto da 2023ko Nafarroako txapelduna. Bere seigarren txapela irabazi du Gorritikoak, Eneko Lazkozekin buruz burukoa jokatu eta gero.

Nafarroako Gobernuak hainbat udali eskatu die Mikel Albisurekin irakurle taldeak dinamizatzeko duten elkarlana uzteko. Erantzuna: Albisuk jarraitzea eskatu dute 65 irakurle taldek.

Sei hilabeteko espetxe-zigorra ezarri diote ertzain bati, Getxoko polizia-etxean atxilotuta zuten emakume bat jotzeagatik. Polizia-etxeko bideo-grabazioei esker frogatu dute eraso.

TEKNOLOGIA

Euskal kultura digitalaren #FantasiaDA



DIANA FRANCO

Durangoko Azokan, urtero legez Kabi@ digitala gunea aurkituko dugu. Sortzaileek egiten duten lana ulertzeko aukera zuzena eta eraginkorra dira gunek. Baina zergatik gerturatu Kabi@ra? Askotan soinua, literatura, ikus-entzunezkoa, jokoa... kategoriek digitala izan dezakete euskarri edo bitarteko tresna, baina sortzailearentzat aldagai horrek ez du bestelako garrantzirik. Kabi@n aurkezten diren sortzaileentzat, ordea, eremu digitala ez da soilik bitartekoa, sorkuntza materiala da berez, eragin behar den eremua, edota egindako lanaren izaerentzat beharrezkoa ikusten dena. Horregatik da hain anitza Kabi@, eta bertan ikus ditzakegun emaitzak bizi dugun mundu digital garaikidearen isla dira.

Interesgarria da Durangoko Azokan gune hau izatea eta eztabaida kritikoa aurkezpen eta mahai-inguru gehienetan txertatzea, euskal eremu digital oso osasuntsu baten seinale baita. Elkarrekin pentsatzeak mundu ikuskera berriak eraikitzeke aukerak dakartza, eta horrek, gauzak beste modu batera egiteko aukerak. Zer da ederragoa, bizitza erdian jarrita, hobetzeko aukerak ikusten dituen gizarte bat baino? Aukerak ikustea etorkizunera baikortasunez eta gogoz begiratzea da.

Adimen artifizialak hezkuntzan izango duen eragina, sareetan euskalgintza- inguruko ikerketa, irisgarritasuna handitzeko gailua, sortzaileen tresnak elkarbanatzeko plataforma, euskal irakurleen komunitatea, pertsonak publikitategai bilakatzen ez dituzten tresnak, pentsatzen jarraitzeko fikzio espekulati- boia lantzen duen irratia, digitalizazioak bizitzan duen eragina hobeto ulertzeko hezkuntzarako baliabide kritikoak, nerabeekin teknologiaz hitz egiteko gurasoei lagunduko dien gida, 3Drako sortu- riko musika, bidojokoak... Bi egunetako programan hau dena jaso baldin bada, zer ez da egongo hor kanpoan! ●

NAZIOARTEA

Familia hautsiak

AXIER LOPEZ

Su etena agortuta, berriz ere hasi da Israel ume palestinarrek hiltzen. Gazako Zerrendako biztanleen %40k 15 urte baino gutxiago ditu. Jaiotze tasa oso handia da eta beraz familia ugariak asko dira. Hala, sarraskia hasi zenetik, Gazako familia-argazkiak Israelgo genozidioaren erretratu bihurtu dira. Israelen bonbardaketa indiskriminatuen ondorioz, ehunka familiak galdu dute kide bat baino gehiago, eta familia asko ia erabat desagerrarazi dute. Egoeraren gordinak erakusten du Gazako ospitaleetan medikuek sortu duten akronimoa umezurtz geratu diren haurren egoera deskribatzeko: W.C.N.S.F. *Wounded Child No Surviving Family* (Haur zauritua, bizirik dagoen seniderik gabe). ●



LOBBYGINTZA TOXIKO BAT DAGO GLIFOSATOA BAIMENTZEKO EUROPAREN ERABAKIAREN GIBELEAN

Glifosato herbizida erabiltzeko baimena beste hamar urterentzat luzatu zuen azaroaren 16an Europako Batzordeak. Erabaki inkoherentea, ikusirik produktuaren toxikotasuna frogatzen duten ehunka ikerketa zientifiko daudela publikaturik. Inkoherentea ere, jakinik AEBetako 113.000 herritar indemnizatu dituela glifosatoaren ekoizle Bayer enpresak eta beste 47.000 auzi dituela oraindik esperoan –hain zuzen, herbizida erabili ondoren minbizia garatu izanagatik–. Baina, dirudienez, horrek guztiak ez du nahikoa pisu agroindustriako lobbyen parean.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Arrisku heina ikusirik, glifosatoa debekatzeko beharrik ez dagoela ondorioztatu berri du Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritzak. Animalien, gizakion eta ingurumenaren gaineko ondorioak azterturik, herbizida erabiltzen segitu daiteke. Bide beretik doa Produktu Kimikoen Europako Agentzia: glifosatoa ez da kantzerigenoa eta ez dago arriskurik erabiltzen. Horiek horrela, erabileraren baimena hamar urtez luzatzearen alde agertu da Europako Batzordea azaroaren 16an.

Estatu kideen postura argirik ez denez agertu, erabilerarekin segitzearen alde egin du Bruselak, estatu bakoitzari utziz erabiltzenerako baldintzak finkatzeko erabakia. Hain zuzen, Europar Batasuneko biztanleriaren %65 ordezkatuz, 15 estatuk egin behar lukete alde edo kontra, baina bi baldintza horiek ez dira bete: hamazazpi alde bozkatu dute, hiruk aurka (Luxenburgo, Kroazia eta Austria) eta zazpi abstenitu dira (Frantzia, Alemania, Italia, Herbehereak, Bulgaria, Belgika, Malta). “Beste behin, Europako Batzordeak nahiago du agrokimikaren sektoreko lobbyen aldean kokatu; abisu zientifikoak segitu, zehurtasun printzipioa kontuan hartu eta pestizidaren debekua bere gain hartu beharrean”. Horra Greenpeaceen erreakzioa.

Ozeanoaren beste aldetik etorritako abisua balitza bezala, biharamunean,

azaroaren 17an, AEBetako Missouri estatuko auzitegi batek 1.500 milioi dolarreko kalte-ordaina pagatzera behartu zuen Bayer enpresa, hain zuzen, glifosatoz osaturiko Roundup produktua erabiltzen arituriko hiru herritarrek minbizia garaturik. Herbizidaren eta minbiziaren arteko lotura frogatua delako zientifikoki: 2019ko *Exposure to glyphosate-based herbicides and risk for non-Hodgkin lymphoma: A meta-analysis and supporting evidence* (“Glifosatoan oinarritutako herbizidekiko esposizioa eta Hodgkin ez den linfoma izateko arriskua: meta-analisia eta frogak”) ikerketak argira ekarri zuen glifosatoarekin kontaktuan dabilzanez gisa horretako minbizia garatzeko %41 aukera gehiago dutela. Funtsean, 2015az geroztik “kantzerigeno probable” gisa sailkatu du Minbiziari buruzko Nazioarteko Ikerketa Zentroak. Mila ikerketa “independenteren gainean” oinarritu da Munduko Osasun Erakundearen parte den egitura ondorio hori ateratzeko.

Horregatik, Europako Batzordearen erabakiaren aurka egin dute Europako bost elkartek, eta prozedurari segi, bi hilabete dituzte erabakiaren berrikuspenera galdatzeko.

Glifosatoaren arriskua baieztatzen duten ikerketa zientifikoaren kopurua eta Europar Batasunak ingurumenari eta

elikadurari begira harturiko helburu berdeak –*Farm to fork* edo “etxaldetik sardexkara” programaren baitan, pestizidaren erabilpena erdira jaitea 2030erako eta laborantza lurren %25 ekoizpen ekologikora bideratzea– kontuan harturik, ulergaitza da Europar Batzordearen erabakia. Soilik agroindustriako lobbyei begiratuz gero konprenitu dezakegu. “Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritzak ikerketa zientifiko anitz baztertzeko dituzte %90 inguru–, industrialek buruturikoak lehenetsiz”, Laurence Huc ikerlariaren arabera. Froga gisa pestizidaren arloan dabilen Chuck Benbrook ekonomialari amerikarraren datua plazaratzen du: interes aurkakotasunik gabeko egileen ikerketen %75ak frogatzen du glifosatoaren toxikotasuna.

ERAGIN HANDIKO LOBBY LANA

Un lobby bruyant pour un printemps silencieux. Les tactiques de lobbying toxiques de l'industrie des pesticides contre Farm to Fork (“Udaberri isil batentzako lobby zaratsua. *Farm to Fork*-aren aurka pestizidaren industriak eraman lobby toxikoa) txostenean argiki agertzen da zer nolako estrategia eragin-korra duen agroindustriak montaturik. Lobbygintzak leku handia hartzen du sektoreko multinazionalen lan eta aurrekontuan. Bayer enpresak, demagun, 7.000.000 euro baliatu zituen 2021ean



TOXIKOTASUNA FROGATURIK

Milaka ikerketa zientifikok frogaturik dute glifosatoaren alde kantzerigenoa. Hala eta guztiz ere, lobbyen presiopean, agroindustriak bideratu ikerketak lehenetsi ditu Europako Batzordeak. Azken horien arabera, Bayer enpresaren herbizida ez da arriskutsua.

Europar Batasunaren baitan eragiteko. Oro har, lan ardatz ezberdinak dituzte: kontra-ikerketak glifosatoaren aldeko ondorioak zabaltzeko eta toxikotasunaz duda zabaltzeko; *farm to fork*-aren zikintzeko komunikazioa; AEBen gisara, aliatu dituzten beste estatuen presioa; eta beste.

Gosetearen mamuaren argudioa dute seguruenik landuenetarikoa: populazioa asebetetzeko behar den elikagai kantitatea ezin daiteke produzitu ekoizpen ekologikoan eta herbizida eta pestizidarik gabe. Ukrainako gerrak merkaturaren duen inpaktua ere ederki baliatu dute argudio horri inportantzia gehiago emateko. Alta, Bioaniztasunaren Munduko Kontseiluko kopresidente Josef Settelek argi du: “*Green*

Deal-aren iraunkortasun-helburuak deuseztatzeko saiakera politikoez gaituzte elikadura-krisiaz babesten, alderantziz, krisiaren areagotzea eta betikotzea dakarte”.

Hori horrela, haserre eta inpotentzia gorputzarekin begiratzen dio dagoenari Huc ikerlariak: “Substantzien segurtasuna ziurtatzean datza nire lana. Bost urte nabilela pestiziden arloan, eta hogeitaz urte hidrokarburo eta dioxinarenean. Sutan jartzen nau ikusteak jakintza zientifikoak dauzkagula [glifosatoaren toxikotasuna frogatzeko] baina ez dutela arautegirako eta erabaki politikoetarako ezertarako balio”.

Jakinik AEBetan milaka salaketa direla glifosatoaren ekoizle Bayer-en aurka, indemnitzazioak ordaintzeko prestuta-

suna adierazi zuen enpresak 2020an: roundup produktua erabiltzeagatik minbizia pairaturiko 113.000 herritarrei 16.000 milioi dolar banatzea. Beste 47.000 auzi ditu, ordea, bere esperoan. 113.000 zenbaki potoloa da... baina seguruenik ez da nahikoa lobbyen presioaren aitzinean burua zut gelditzeko.

Glifosatoa debekatzeko nahia deitoratzeko orduan, lobby lan horretan ezaguna dugun FNSEA sindikatuko presidentek dio ingurumena ezin dela “laborantzatik bereizirik kudeatu”. Baina hain justu, horrek gintuen gaur egungo krisi ekologikora eraman: laborantza ingurumenetik bereizi eta produktibismoari bakarrik begira jarri ziren. Ingurumena xehatuz. Ingurumena eta milaka laborariren osasuna xehatuz. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Evil Eye

Leo Bueriberi

GUZTIZALEA



GAUZAK ESPLORATZEA GUSTATZEN ZAIT, NORA HELDUKO NAIZEN JAKIN GABE



Bere burua aurkezteko eskatu diodanean, ipurterrea dela esan dit Leo Bueriberik, eta aulkian jesartzeko moduan ere nabaritzen zaio nekez egoten dela geldirik. Hiru ordu-laurdenean hamaika gai jorratu ditugu –irratigintza, musika, aktibismoa...–, eta zenbat gehiago geratuko ziren kanpoan!

 DANELE SARRIUGARTE MOTXALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hasteko, aurkeztuko zenuke zure burua?

Galdera erraza dirudi... Leo naiz, gaztea, sexu-genero disidentea, ipurterrea, musikalak; denetatik egiten saiatzen den artista bat.

Nik DJ Eromena gisa ezagutzen zintudan, baina bideo batean ikusi zaitut MICE taldearekin abesten Gasteizko gaztetxean.

Oso ondo pasatu nuen. MICEkoek kontzertu bat zeukaten, gero nik musika jarri behar nuen, eta galdetu zidaten ea animatuko nintzen kantu bat kantatzera. MICEren oso fana naiz, eta abesti pare bat ezagutzen nituen, bat aukeratu, behin entseatu, eta aurrera egin genuen. Kantua jakin arren, urduri jarri nintzen,

eta momentu batean ahaztu nuen letra, eta pentsatu nuen, “bueno, ez da inor konturatuko” eta justu dago bideo-zati bat momentu hori erakusten duena!

Gustatzen zaizu gauzak probatzea?

Bai, lotsa aspaldi galdu nuen. Gauza batetik bestera ibiltzen naiz, probatzen, eta nahiz eta beste gauza oso desberdinak egin, batak besterako balio dit. Ezagutzak lotzen joaten naiz.

Hala Bedi tabernan egin dugu hitzordua. Zer lotura daukazu irratiarekin?

Gaur egun *O no será/Ez da izango* programan nabil, irratsaio feministan, hainbat talde txandakatzen gara programak egiteko. Nik Emakume* Migratu eta Arrazializatuen Sareko kide gisa parte

hartzen dut programan. Astelehenetan emititzen da, gaueko hamar eta erdie-tan. Saio batzuk gaztelaniaz izaten dira, eta beste batzuk euskaraz. *Zebrabidea*-n eta *Hizpidea*-n ere ibili naiz kolaborazioak egiten.

40 urte bete ditu aurten Hala Bedik; ez da erronka makala. Kanpotik miresmen handiarekin ikusten da proiektua, zuretzat zelako espazioa izan da?

Nik uste politikoki nahiko espazio interesgarria dela, eta halako proiektu bat hainbeste denboraz mantentzea kristoren lana eta borroka da. Azkenean ehun pertsona baino gehiago gabilta militantzian, programa pila bat egiten dira, eta programa batzuek 20 urte da-



Leo Bueriberi

MALABO, IPAR BIKO, 1998



Leo Bueriberi gasteiztarra hainbat arlotan dabil: musika jartzen du DJ Eromena izenpean, argazkilaritza analogikoa gustatzen zaio, *O no será* / *Ez da izango* irratsaioan parte hartzen du, eta kolaborazioak egiten ditu *Zulora* (Hiru Damatxo) eta *Piztu TB* (ETB1) saioetan; azken horretan Kora eta Maroa lagunekin batera agertzen da. Bestalde, Emakume* Migratu eta Arrazializatuen Sareko kidea da. Elkarrizketa honetan ez dugu tarterik izan queertasunaz eta sexu- zein genero-disidentziaz dituen ikuspegiak lantzeko, baina, interesa baduzue Bizi proiektuan egin zioten elkarrizketara jo dezakezue.

ramatzate. Nik uste hedabide alternatibo bezala nahiko baliagarria dela horrelako espazioak izatea; batetik, medio batzuetan entzuten ez ditugun gauzak edo eztabaidak izan ditzakezu, eta bestetik, espazioa bera nahiko irekia da. Kolektibo desberdinetako jendea elkartzen da, eta irratira hurbiltzeko aukera polita da: ez duzu irratigintza ikasi behar, han trasteatu dezakezu. Gertu daukazun medio bat da. Gainera, hedatzen joan da; hasiera batean hasi zen irrati moduan, gero dago erredakzioa, *Hala Bideo* atala... Nik uste dut Araban erreferentzia bat dela. Eta nabaritzen ari da belaunaldi-aldaketa; nola ari diren poliki-poliki ikuspegi berriak sartzen.

DJ ekipo eta guzti etorri zara gure hitzordura. Nolatan hasi zinen musika jartzen?

Pertsona nahiko inpulsiboa naiz, eta esango nuke guztizalea naizela. Aspalditik neukan musika jartzeko gogo, eta hasi zen txorakeria bat bezala. Iazko azaroan kafetxo bat hartzen ari nintzela ohartu nintzen jada denboratxo bat neramala horretan pentsatzen, eta justu han zegoen Satéliteko Bibiana, eta esan zidan, "aizu, nahi baldin baduzu datorren hilean *pintxatu* dezakezu hemen". Baietz esan nion, mahaia erosi, eta pentsatu nuen: "Badukat hilabete, ahal dudan guztia ikasiko dut, eta horrekin aurrera".

Kikildu gabe.

Bestela noiz? Bestela oso pentsamendu polarizatua izaten dut: edo ez dut egiten, edo perfektu egin behar dut eta DJ akademiara joan behar naiz, zerotik dena ikasi... Niri gustatzen zait ekintza. Orduan hasi nintzen tutorialak ikusten.

Hori galdetu behar nizun, nola ikasi zenuen?

YouTube. Kurtso batean sartu nintzen, baina hainbat bideo ziren, eta nik ezin ditut bost bideo ikusi, bi minutukoak izanda ere, ezin dut azkeneraino iritsi. Lehen bideoa ikusi eta probatu nahi dut. Azkenean, zuk ikusten duzun moduan egin behar duzu, zu moldatzen zaren moduan, zuri gustatzen zaizuna, eta niri gustatzen zait pila bat musika, toki batera joaten naiz eta abestien erdiak ezagutzen ditut. *Pintxatzea* da nire festa egitea bezala: nire *playlist* gustukoena jarri, nik besteek baino hobeto pasatu...

Zer musika mota jartzen duzu?

Besteak beste, hip hop, assonto, amapiano, afrobeats, dancehall, afropop, r&b, funk carioca...; batzuetan soinu elektronikoein nahastuz. Azkenean, ikasketa-prozesu hau ez da bakarrik mahaiarekin trasteatzea, baizik eta nire burua ikustea halako espazioetan, ea nola doan.

Aurten izan dut aukera polita testuinguru ezberdinetan jotzeko: ez da gauza bera jotzea bermut batean, arratsaldeko seietan merkatu batean edo gaueko ordu bietan gaztetxe batean. Nire burua ikustea halako egoeratan, antsietatea eta presioa kudeatzea, ariketa polita izan da niretzat.

Baduzu egunen bat bereziki gogoratzen duzuna dena delako arrazoiren batengatik, ona edo txarra?

Ona edo txarra... Estres-momentuak egon dira. Posible den heinean lagun baten batekin joaten naiz, baina normalean bakarrik, orduan gertatu izan da DJ-saioa hastera, kablaren bat gaizki egotea, gaizki entzutea, eta igual ordu-erdi galtzea konponbide baten bila. Daukat ordenagailu eramangarria pixka bat izorratuta, berotzen zait pila bat, eta, behin, Bizi proiektuaren festan, Bilboko Biran, hiru bider itzali behar izan nuen. Orduan pentsatu nuen: Bad Gyal abestuko dut. Hartu nuen mikroa, teknikariari abisatu...

Zer kantu abestu zenuen?

"Zorra". Eta publikoak nirekin abesten! Beste batean ere amaitu nuen abesti bat kantatzen. Nik uste harrerak ere laguntzen duela, jendearen jarrerak. Batzuetan izaten duzu beldurra, nola egingo dut, presioa... Baina ikasi dut zuzeneko kontuak direla, arazoak gertatzen dira, eta aurrera.

Giroa sortzea oso inportantea da musika jartzen duzunean.

Polita izan da zeren DJ plan horietan ibiltzen naiz nik faltan hartzen dudaren bila: faltan dut era horretako musika afrikarra entzutea. Badaude espazio batzuk horretarako, baina oso gizonezkoenak dira. Adibidez Ginean ez nintzateke halako batera joango, *señoro*-en taberna tipikoak dira, futbola eta beste.

Eszenatokiaren beste aldean nor dagoen ere, horrek baldintzatzen du giroa, eta guaia izan da festa alternatiboetan parte hartzea, festa queerrak,

fiesta feministak, halakoetan dagoen jendea eta giroa.

Honantz nentorrela ikusi dut Zulora saioan ere kolaboratzen duzula, iritzi-pilulak egiten.

Bai. Galdetzen didatenean ea zer egiten dudan, ba hilabetearen edo egunaren arabera erantzuten dut. Uste dut pandemia-garaian parte hartu nuela lehen aldiz *Zulora*-n, joan nintzen elkarrizketatu moduan, eta gero hurrengo urterako kolaborazio bat egitea eskaini zidaten. Aurten errepikatuko dugu formatua, baina kapitulu batzuetan agian ibiliko naiz kale-inkestak egiten Gasteiztik, gauzak galdetzen. Graziosoa.

Aktibismo antiarrazis-tari buruz galdetu nahi nizuke orain. Emakume* Migratu eta Arrazializatu Sareko kidea zara: ezagutzen ez duenarentzat, zer da?

2017an sortu zen, eta espazio feminista, antiarrazista eta dekoloniala da. Espazio ez-misto gisa sortu zen, ikusten genuelako beharra horrelako espazioak izateko, gure erabakiak hartzeko; azkenean militantzia-espazio mistoetan ematen dira botere-dinamika batzuk, eta saihestu nahi genituen, teorian ez ezik praktikan ere bai, ze halako gauzak gertatu dira. Niretzat, sare, erresistentzia moduko zerbaite da, irlatxo bat, azkenean ez gara agenda politiko batengatik bakarrik batzen. Batzuk gaude Gasteizen, beste batzuk Bilbon, beste batzuk Bergaran... Batzen garenean hartzen dugu eguna edo asteburua, eta lehenengo orduak izaten dira elkar agurtzeko eta ikusteko zer moduz gauden. Zaintza-espazio bat da, baita beste maila batzuetan ere.

Hor gaude emakumeak eta pertsona disidente batzuk, jatorri desberdinetakoak, gehienak Hego Amerikakoak eta batzuk afrikarrak. Batzuetan egiten ditugu barrurako ekintzak, beste batzuetan egiten ditugu formakuntzak, tailerrak edo dinamika irekiak. Eta indarra daukagunean beste dinamika edo deialdi batzuekin batzen gara.



Zein da zure harremana aktibismoarekiko? Elkarrikitzeta batean entzun dizut oreka bilatu nahi zenuela, nekagarria ere gertatzen baita.

Bai, nekagarria da. Nik uste dut badagoela existentzia bat ere, eta jakin behar dugula noiz erretiratu, jakin behar dugu gure burua zaintzen, eta horrek izan behar du lehentasun bat. Bukatu dezakezu erreta, egon zarelako hau egiten edo jende zuria aguantatzen edo jende zuriarekin eztabaidatzen, eta igual behar duzu desintoxikazio bat.

Lantegiak antolatu izan dituzue, besteak beste pribilegio zuriari eta desira deskolonizatzeari buruz. Zerenolako esperientziak izan dira?

Pribilegio zuriaren tailerra, adibidez, hiru saiokoa zen. Formatu motzean egin izan dugu, baina Gasteizko Emakumeen Etxean egin genuenean izan ziren hiru txanda, eta nahiko nekagarria izan zen.



“Konturatu gara igual gu haien agenda batzen garela, baina ez dituzula ikusiko feminista zuriak gure deialdietan”

Orduan azkenaldian ari gara emakume arrazializatu eta migratuentzat gauzak egiten; pandemia-garaian, adibidez, ki-deetako bat psikologoa da, eta berarekin saio batzuk egiten genituen online.

Ikusten dugu ezin garela gauza gutietara heldu, edo gure buruari galdetzen diogu zergatik jarraitu behar dugun agenda hegemonikoa. Konturatu gara igual gu agenda horretara batzen garela baina kontrakoa denean ez dituzula ikusiko feminista zuriak gure deialdietara etortzen. Beraz agian gure agenda propioa eramango dugu; noski

Nahiz eta espazio feministan egin, nahiz eta emakume feministei zuzenduta egon, azkenean jendeak ikusten duenean gizon zuri heldu bat konferentzia bat ematen ez da ezer zalantzan jartzen, eta egon gara halako egoeretan non erantzun dugun zeozer eta pertsona bat zegoen Googlen bilatzen ea benetan gure erantzuna zuzena zen.

Halako espazioetara joaten naizenean ni ez noa lagunak egitera, noa super serio: etorri naiz, esango dut hau, argi eta garbi, eta espazio feminista batzuetan eskatu digute ea salaketak zaintza pixka bat gehiagorekin egin genitzakeen. Feminista zuriaren artean oso normalizatuta dago gauzak erretzea, borrokatzea, *a las barricadas*... Baina pertsona arrazializatu bat zarenean esaten dizute egoteko lasai, “gauzak ez dira horrela egiten”, “enpatia izan behar duzu nirekin”...

Azkura eragiten du.

Asko. Beraz, azkenaldian egon gara gehiago emakume arrazializatuentzako tailer-erak ematen: egin genuen irrati-tailer bat, adibidez, eta aprobetxatu genuen emakume arrazializatu erreferenteen genealogiak berreskuratzeko. Sarearen barruan kezka sortu zaigu ea baietz esan behar dugun beti deitzen digutenean, ea zertarako gordeko ditugun indarrak eta norentzat.

gauza batzuk izango ditugula komunean, baina kito.

Amaitzen joateko, badakit argazkilaritza ere interesatzen zaizula.

Orain pixka bat geldirik daukat arlo hori, baina hasieran pen-tsatu nuen: hartuko dut kamera analogikoa eta trasteatuko dut, eta batez ere nire lagunak erretratatzeko kontu bat zen, ikusi nahi genuen *black joy* [alaitasun beltza] pixka bat, jende arrazializatua pozik, gauzak egiten. Gainera nire lagunak halako espazioetan mugitzen dira –ikus-entzunezkoak eta ilustrazioak egiten dituzte, adibidez– eta erraz ateratzen zen. Baina bueno, gaur izango da argazkilaritza, eta bihar ez dakigu. Bilaketa horretan, gustatzen zait gauzak esploratzea, berdin zait nora helduko naizen. Djaren kontuarekin berdin, ez dakit noiz arte egongo naizen horretan, momentuz gustatzen zait, disfrutatzen dut, eta balio izan dit baita depresioa ekiditeko ere.

Bai?

Hasi nintzenezan justu langabezia gera-



tu nintzen, eta noski sistema kapitalista honetan, bat-batean zenituen ez dakit zenbat ordu lan, eta bat-batean ez daukazu ezer eta ea zer esaten diezun galde-tzen dizutenean zer egiten duzun. Ez dut ezer egiten. Baina ez da egia. Hasteko, deskantsatzea, zure burua zaintzea, zure garapen pertsonalean aritzea, hori ez da ezer ez egitea; nire burua zaintzen ari naiz, nire bizitza antolatzen, planifikatzen, bizitoki bat bilatzen eta halako gauzak egiten. Baina musika jartzeare-

na zen modu bat ohetik altxatzeko, ilusioa pizteko eta gorputza mugitzeko. Eta gero musikarekin dudan harremana, musikak balio dit pila bat gorputza erregulatzeko, emozioak ateratzeko, lasaitasun-puntu batera iristeko, gauzak kanporatzeko... Balio terapeutiko bat ere izan du niretzat. Gero joan naiz gehiago ikasten, eta momentuz Djaren kontua da nire obsesioa.

Etorkizunera begira zer erronka daukazu?

Abenduaren 16an Donostia-ko Dokan izango naiz *stand up* probalekuan Karkarkar proiektuko jendearekin, nire bakarrizketari-fazeta esploratzen. Ez dakit zenbat aldiz egingo dudan gauza bat edo bestea, baina proiektu berrietan parte hartu nahi dut, eta nire burua ikusi eszena ezberdinetan. Deitzen nauten tokian musika jartzen aritzea espero dut, eta bestetik aritu nahi dut gauzak egiten pozik eta gogotsu, berdin du zer egiten, baina gogoekin, gozatuko dut eta bizipoz bilatuko dut horrekin. ●



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA

Euskadi, nazionala, bizi comin

EUSKO JAURKILARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAKOZLEKIA DUTRIBEL
JURADIAKONAKO
EKOLOGIA, INGURUMEN
ETA ENERGIAREN
DIREKZIOA

www.eve.eus



Feminismoak ekonomia berrasmutzen

Azaroaren 30eko greba feminista orokorrak bide ematen digu ekonomian genero ikuspegiak ekartzeko duen begirada berriaz eta emandako urratsez hausnartzeko. Ekonomia konbentzionalak soilik etekinak lortzeko ahalegina egiten duen bitartean, genero ikuspegiak jendartearen eta planetaren bizitzan ipintzen du arreta nagusia, ekonomia zaharraren funtsak hankaz gora ipinita.

Genero ikerketak eta azterketak oso albokoak izan dira akademian, batez ere ekonomian, zeinean azkenaldian ortodoxiak presentzia indartsua izan duen. Nolanahi ere, haize berria dator akademiara emakumeen indarrak eta ahaleginak hauspotuta. Eta horren adibide argia da aurtengo ekonomia Nobel saria Claudia Goldin genero arrakalaren iker-tzaileak jaso duela. Aipatutako sariak batez ere ortodoxia liberala lehenetsi duen arren genero azterketen bulkadari men egin behar izan dio.

Claudia Goldinen ahalegin nagusia genero arrakala gainditzeko oinarri teoriko eta praktikoen azterketan gauzatu da. Lan merkatuko ikerketen eremuan genero arrakalaren ebidentziak ekarri ditu ikerketara eta eraginkorrak diren politika publikoen neurri egokiak abian jartzeko funtsezkoa izan da bere lana. Besteak beste, 200 urteko datuak erabilita AEBetako genero arrakalaren azterketa egin zuen eta lan merkatuko mitougari hankaz gora bota zituen. Esaterako, hazkunde ekonomikoa eta genero

Jendarteak emakumeekiko zor historikoa du haiek egindako –eta gehienetan ordaindu gabeko– zaintza lanagatik

arrakalaren balizko jaitsieraren arteko erlazioa gezurtatu zuen. Aitzitik, bi mendetan genero arrakalaren hobekuntza gertatu bada bi arrazoi hauengatik izan dela ondorioztatu zuen: hezkuntzaren hobekuntza eta antisorgailua erabiltzeko erraztasuna.

Baina Goldin harago joan da eta kultur aldaketaren premia azpimarratu du. Bere esanetan, enpresa kultura lanpostuan ordu gehiago egiten duenaren sustapenean oinarritzen da. Eta malgutasun falta horrek emakumeak bere lan bizi-tzaren inguruan hartzen dituen erabakietan eragin zuzena duela dio.

Hala ere, berdintasunaren aldeko ekarpenaz harago, ekonomia feminista argi luzeko alternatiba da, ekonomia konbentzionalaren oinarriak eta helburuak zalantzan jartzen dituen neurrian. Jendartearen ongizatea eta bizitza ego-kia dira erdigunean ipintzen dituenak



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

genero ekonomiak eta Barne Produktu Gordinaren neurria eta bere logika merkantilista baztertzen ditu. Zaintza lanak, etxeko lanak, laguntza, pertsonen sostengua... merkatuaren elkartrukeetatik kanpo dauden zereginak bizitzarako funtsezkoak dira, batez ere emakumeek egiten dituzte eta ekonomia ofizialak ez ditu kontuan hartzen. Horregatik, ekonomia feministak dio lan horiek ere kontabilizatu eta merkatuz kanpo dauden emakumeen ekarpena kontuan hartu behar dela.

Ordaindu gabeko lana eta etxeko zein merkatuz kanpoko zerbitzu gisa ekoizten eta elkartrukutzen dena erraldoia eta ikusezina da. Beraz, baldin eta ekonomia harremanak eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak nola eraikitzen diren hobeto ulertu nahi badugu, paradigma berri bat beharrezkoa da. Ildo horretan paradigma feministak ekonomiaren helburua bera berrosatzeko du, etekinak maximizatzeko asmoa alboratu eta berdintasuna, ongizatea eta zaintza erdigunean jartzen ditu.

Jendarte orok zaintzak behar ditu eta eskaintzen ditu, baina gakoa da nolako arreta ipintzen diogun ikuspegi komunitario batetik zaintzari eta nork hornitzen dituen zerbitzu horiek. Jendarteak emakumeekiko zor historikoa du haiek egindako –eta gehienetan ordaindu gabeko– zaintza lanagatik. Erreparazio historikorako urrats garrantzitsua da azaroaren 30ean kaleak bioleta kolorez betetzea. ●

Etorkin helduei ez diegu euskara eman behar?



MALORES ETXEBERRÍA



DOM CAMPISTRON

UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, *Egin nirekin euskaraz* leloa daraman kanpainan aurkeztu zuen komunikabideen aurrean pasa den hilabetea. Jatorria Euskal Herrian ez duten familiak agertu dira, UEMAKo ordezkariekin batera. Esan dute maiz haur horiengana euskaldunok gaztelaniaz hurbiltzen garela eta horrek mina ematen diela, asko badakitelako euskaraz. UEMAKo lehen-dakaria bi herri euskaldunetako eskola irakasleekin batera agertu da.

Oso egokia eta beharrezkoa iritzia diot kanpainari, askotan jabetu naizelako jokabide horiek bizi-bizirik daudela euskaldunon artean, bai herri euskaldunetan eta, nabarmenago oraindik, erdaldunagoetan, eta haur horiei euskaraz mintzatzeko aukera ukatzen zaie. Baina kanpaina are eta interesgarriagoa iruditu zait, ez delako haurrekiko harremanetara mugatzen baizik eta helduak ere jo-puntuari jartzen dituelako, eta helduekiko gure harremanetan bai nagusitzen dela gaztelania. Haurrek, arazoak arazo (eta handiak dira eskolek dituzten zailtasunak eta baliabide ezak haiek euskalduntzeko) ikasten dute euskaraz, batez ere herri euskaldunetan, eta gozatu handia da

euskaraz tapa-tapa entzutea. Besterik da, ordea, helduekin gertatzen dena.

Gutxienekoak dira gaztaro edo helduaroan Euskal Herrira iritsi eta euskara ikasi duten etorkinak. El Salto-Hordago hedabideak *“El pedregoso camino de las personas migrantes para aprender euskera”* (Euskara ikasteko etorkinen bide traketsa) izeneko artikuluan, hainbat datu eman ditu, Begirune Fundazioak 2023an egindako inkesta batetik ateratakoak. Besteak beste, hauek: inkestatutako pertsona etorkinen %84k esan du ez dakiela batere edo apenas ezer euskaraz; %10ak dio oinarritzko maila bakarrik ezagutzen duela eta %5 da euskara ondo edo nahiko ondo dakiela dioena. Gehien iritzia da ez dela euskararik behar Euskal Herrian bizitzeko, %65ek dio euskara ez dela bere inguruan inoiz erabiltzen.

Pertsona horiek lanera etorri dira gurera, bizi beharrak eraginda, eta gure etxe, taberna, ospitale nahiz beste lantokietan ari dira lanean. El Salto-Hordagok pertsona horietako lauren lekukotasunak jaso ditu eta laurak diote oso aukera gutxi eman zaiela euskara ikasteko. Eta diote, laguntza ekonomikoaz gain, zeina ez dagoen bermatuta oraindik, lanaldia murriztu eta ordu

horietan euskara ikasteko aukera eman beharko litzaiekeela.

Hizkuntza-politika anbiziotsuagoa eta akordio sozio-politiko berria planteatzen diren abagune honetan, praktikan jartzeko neurrietako bat izan behar da, presazkoa, etengabe iristen ari zaizkigun etorkinei gaztelania ez baizik eta euskara ikasteko lehentasuna eta erraztasunak ematea, lanaldi murrizketa eta lanorduen barnean euskara ikasteko aukera barne.

Enplegatzaileok, izan partikularrak (gure etxeetan betidanik euskaraz mintzatu diren adinekoekin euskaraz ez dakiten zaintzaileak ditugu nagusiki) edo izan administrazioa nahiz enpresa pribatuak, bitartekoak eta dirua jarri beharra dauzkagu kontratupeko langileek euskara ikas dezaten.

Ardurak partekatua behar du, beraz: euskaldunok euskarari eusten ikasi behar dugu, ados, eta badugu lana, baina euskara duintasunez ikasteko baliabideak ematea enplegatzaile eta administrazioari dagokie. Hirugarren hanka migranteek beraiek osatzen dute. Eskertuko nieke gehiagotan eskatzea euskaldunoi beren aurrean hizkuntzaz ez aldatzeko, asko lagunduko ligukete-eta. ●

Erabaki politikoa euskaldunon alde



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
EUSKALTZALEA

Hizkuntza bat babestea erabaki politikoa da, hizkuntza bat zentsuratzera edo murriztea den bezainbat". Hitz argigarri horietan egin zituen Espainiako presidente Pedro Sánchezek, Alderdi Sozialistako presidente ere badenak, irailean, Espainiako Kongresuan euskara (eta estatuko beste hizkuntza ofizial batzuk) erabiltzeko aukeraren alde sozialistak ere agertzeagatik sortutako polemikaren erdian.

Sánchezek hitz politikak egin zituen, baina euskaldunoi dagokigunez, bere alderdiaren urtetako praktika beste murturrean dago, hitz horiekin ez fidatzeko lain. Espainiako Alderdi Sozialistak euskaldunekiko bazterkeria praktikatu du Nafarroan, eta horretan jarraitzeko asmoa adierazi du. EAEn, euskaldunon eskubideak eta euskararen lege babesa trabatzen aritu da, eta horretan jarraitzen du; ugariak dira adibideak. PSOE-ren sukurtsal PSEk eta PSNk ez dute hartu nahi izan hizkuntza eskubideen berdintasuna helburu lukeen eraldaketa sozialaren ardura; ez dute aurretik joan nahi izan gizartea hezten hizkuntza gutxituekiko errespetuan, hiztunen eskubideen berdintasunean. Are, euskaldunon hizkuntza eskubideen bermea ekar zezakeen edozein neurri oztopatu izan dute, eta harro agertu izan dira ho-

rregatik. Ez dira gutxi izan jarrera oldarkor, antieuskaldun eta oso espainolak erakutsitako aldiak. Nolabait, euskararen berreskurapenaren euste hormatzat agertu nahi izan dute, aski espainol ez direla leporatzen dieten sektore erreazionarioen aurrean.

Edonola, sektore neofrankista horiek jo eta pasa egin diete, Espainiako Estatuko zenbait lurraldetan (Balearrak, Aragoi...) berezkoak diren hizkuntzak baztertuta eta espainolaren nagusikeria berrezarrita. Ondorioz, orain Vox eta PPren zaku glotofobo berean ageri dira PSN eta PSE. Ez pentsa, hala ere, horrek gehiegi kezkatu dituenik Sánchezen frankiziaz; ez dute euskarazko murgiltze eredurik bultzatuko EAeko Hezkuntza Legean, ezta zonifikazioa erazuziko ere Nafarroako Euskararen Legetik, ez ditzaten beste horiekin parekatu.

Horiek horrela, pilota abertzaleon buru gainean dago, inoiz egoteari utzi badio, euskarari dagokionez behintzat. Izan epai antieuskaldunei desobediencia eginez, edo euskaraz bizitzeko praktika kolektibo orokorra abiatuta, edo hizkuntza politika beregainak adostu eta ezarrita, edo hobeki, horiek guztiak batera eginez, baina euskaldunoi dagokigu gure hizkuntza babesteko eta euskaraz bizitzeko erabaki politikoa hartzea. ●

Ahoa loriaz bete



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Hautsak harrotu ditu Narayana Murthyk *-Time* aldizkariak izendatutako Indiako informatikaren aitak eta Rishi Sunak Erresuma Batuko lehen ministroaren aitagarrebak-. Izan ere, publikoki adierazi du Indiako gazteek astean 70 orduz lan egiteko prest egon beharko luketela herrialdearen garapenean laguntzeko. Konpromisoz. Urguilu nazionalez. Ez du lehen aldia ahoa loriaz betetzen jaun dohatsu horrek: 2020an, COVID-19ak eragindako motelaldi ekonomikoa zela medio, indiarrek -orduan adin konturik ez zuen aipatu- astean gutxienez 64 orduz lan egiteko proposamena ere egin zuen.

Pandemiaren aurretikoak dira, baina ildo loriatsu berekoak, Jack Ma handiki teknologikoaren adierazpenak *-Forbes* aldizkariak eman zion azala; lehen aldiz, enpresari txinatar bati-. Izan ere, behinola komunismoa besarkatutako martiriak adierazi zuen bedeinkapena dela edonor *996 kultura* delakoaren parte izatea: lanean aritzea goizetako 09:00etatik arratsetako 09:00etara, 6 egunez astean. Hiru zenbaki horietatik heldu da, hain zuzen ere, alfer (madarikatu) batzuek ezagutzen ez genuen zerua.

Talentu dibinoa behar da gero, ahoa -sakela bezala- loriaz betetzen jakiteko. Alajainkoa! ●

Langileak ez diren soldatapekoak



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Desberdinkeria, berdintasunik eza, sistema honetan beti hor dagoen gaia da, bai eskuinean, bai ezkerrean. Kausak eztabaidatu daitezke, baina inork ez du zalantzan jartzen mundu osoan igo dela, bereziki azken hamarkadetan. Zeinen oker zebilen Kuznets pasaden mendeko erdialdean baieztatu zutenen herriak garatu ahala, desberdinkeria behera egin beharko zuela. Lanaren errenten atzeraldiaren oinarrian daude aldaketa teknologikoen lan merkatuan eragindako eraldaketa eta desindustrializazioak aurrera egin ahala sindikatuek izandako indar galera. Hau da, kapitalaren eta lanaren errenten arteko desberdinkeria errentaren atzetan.

Nazioarteko joera orokorra gorabehera, pasa den urrian Naiz hedabideak argitaratutako artikuluan Joseba Garmendiak nabarmendu zuen, Espainiako Estatukoarekin alderatuz, Hego Euskal Herriko errentaren banaketa langileen aldekoagoa zela bertako sindikatuen borrokari esker. Halarik ere, errentaren banaketak desberdinkeria gutxiestera eraman gaitzake, finantzarizazioak enpresen dinamikak eta kapitalak ordaintzeko dituen mekanismoak eraldatu baititu. Egun, enpresaburuen

Desberdinkeria ez da konpontzen langileen eskubide eta soldata hobeak beharantz berdinduta, baizik eta enpresen irabazien aurka soldata baxuenak igota

soldaten bidez uztartzen dira akziodunen interesak eta enpresen estrategiak eta, beraz, soldata altuenak ezkutuko dibidendu bezala uler daitezke, kapitalaren errenta bezala. Pertsona aberatsenen errentetan soldatak izan ohi duen pisuak baieztatzen du hori: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuaren

arabera, aberatsenen errentaren %30-60 soldatetatik datoz.

Soldata desberdintasunaren azterketak haratago joan eta alborapen hori saihesteko aukera ematen digu. Espainiako INEren datuen arabera, 2008tik Hego Euskal Herriko soldaten %10 altuena batezbestekoaren gainetik igo da urtero, eta soldata baxuenek urtero behera egin zuten 2018an, Espainiako Estatuan gutxieneko soldata legez igoz hasi zen arte. Gainera, soldata altuenak inflazioaren gainetik hazi dira, hau da, balio erlatibo eta absolutuetan egin dute gora, eta gainontzeko soldatek geroz eta gutxiago balio dute. Azkenik, batezbesteko soldata ertaina baino gutxiago igo da –gero eta soldata baxu gehiago daudela argi utzita–, baina soldata altuenak gero eta altuagoak dira.

Desberdinkeria ez da konpontzen sektore jakin batzuetako langileen eskubide eta soldata hobeak beharantz berdinduta, baizik eta enpresen irabazien kaltetan soldata baxuenak igota. Baina ikusi dugunez, badira langileak ez diren soldatapeko batzuk, eta soldata horiek murrizteak bai ekar dezakeela kapitalaren eta lanaren errenten arteko desberdinkeria murriztea. ●

Euskaraz hezi, euskaraz bizi!



Opera berria euskaraz
Erabateko estreinaldia

SATURRAN

Konpositorea:
Juan Carlos Pérez

Libretoa:
Kirmen Uribe

Zuzendaritza musikala:
Jon Malaxetxebarria

Zuzendaritza eszenikoa:
Lucía Astigarraga

**2024ko
Ekainak
20, 22**

INFO+



Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Arriaga Antzokiaren
koprodukzio bat.

AMILLUBI PROIEKTUA

Lur bat, kolektiboa, itxaropen haziak ereiteko

Gipuzkoako kostaldean, Urola ibaiaren meandroan daude Amillubi baserria eta bere lurak (toponimoaren arabera "Amilibia"). Udalerriz Zestoa da eta Iraeta auzoan dago naturaren paradisu txiki hau. Aurten 30 urte bete dituen nekazaritza ekologikoaren aldeko Biolur elkarteak ondasun kolektibo bihurtu nahi du eremu hori: lurrarekin errespetuzkoa den laborantza eginez bertan, nekazariak lurak baldintza onetan eskuratu ditzaten eta herritarrek, elikagaiak. Deia zabalik da herritar, erakunde eta enpresen artean, Amillubiko metro koadro bat lur babestu dezagun bakoitzak. Begirada estrategikoarekin, praktikatik erantzun nahi diete elikaduraren etorkizuneko erronkei.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO  IONE LARRAGO

Urola ibaiaren meandroa.
Horrek eta mendietatik datorren urak
klima larrialdi testuinguruan ere ura
eskura izatea bermatzen du.

25.000 metro koadro erriberako
lurra: baratzea edo soroa.

Amillubin noizbait egon denak ez du arrazoiketa potolorik behar natur ondare hori ondusun kolektibo bihurtzeko deiarren aurrean: naturaren indarra sentitzea baino handiagorik ez dago. Gainera, nor hoberik eremu hori zaintzeko, naturarekin errespetuzkoa den laborantza egiten dutenen eskuak baino? Paisaia horrekin herritarrek duten harremana etengabe sendotuko da Urola bailaran, bertan sortutako elikagai osasuntsuak herritarren eskura jartzen diren bakoitzean.

Praktika bera da muina Amillubi proiektuan. Erreportaje honetako koardroan irakur daitezke Amillubin burutu nahi diren ekintza zehatzak eta berau bultzatzeko arrazoiak. Baina proiektu honen oinarrian den ikuspegi estrategikoa ezagutzeko batu gara bertako talde eragileko kide diren Mirene Begiristain Zubillaga, Ioritz Aizpuru Goitia eta Myrian Imaz Juaristirekin. Amillubiko lurrek zer ekarriko duten galdetu diegu eta hauxe erantzun digute: "Esperantza. Garai hauetan, aurrera begirako proiektuak benetan ditugu beharrezko, ezin gara diagnostikoan geratu. Zeren diagnostikoak ikusita, horrelako proiektuentzako arrazoirik ez da falta: baserritarrek

euren ekoizpen proiektuak mantentzeko dituzten oztopo eta zailtasunak, elikagaien prezioak eta hortik zenbat jasotzen duten nekazariak... Amillubik itxaropena ematen du, hau proiektu estrategiko bat da baina praktikatik. Ez ditu egiturazko arazoak aldatzen, baina sektorean dauden hainbat arazo estrukturaleri erantzuten die". ARGIaren irakurleak maiz irakurri izango du arazo horiez: ekoizleen lan baldintzak, errelebo falta, lurraren artifizializazioaren eta espekulazioaren ondorioz lurra eskuratzeko dauden zailtasunak... horiek denak gogoan izanda, "praktikatik arazo horien irtenbidetarako tresnak" jarri nahi dituzte Amillubin: "Erreleboa da lehen sektoreak bizi duen arazo larrietakoa. Hasi nahi duten pertsoneri lurra baldintza onetan utziko zaizkie Amillubin, eta proiektuari ekiteko babesera ere jasoko dute bertan. Baina horrekin batera beste arazo larria dira lan baldintzak; jendea ez da laborantzan geratzen, baldintzarik ez dagoelako. Amillubin lan baldintza onak sortu nahi ditugu, modu kolektiboan". Elikagaien ekoizle-herritar-eragileen arteko sarea jostea bera ere ekarpen ederra dela nabarmendu dute.

Hala ere argi utzi nahi izan dute arazo egiturazkoa dela eta maila politikoan

eragiten jarraitu beharko dutela: "Politika publikoek sekulako garrantzia dute lehen sektorearen etorkizunerako, eta egun martxan dauden politikek ez diete erantzuten arazo horiei. Baina ezin dugu zain eta kanpora begira egon. Guk guretik eta txikitasunetik erantzun batzuk emango ditugu proiektu zehatz honekin, estrategia baten baitan, jakinik egiturazko arazoek hor jarraituko dutela".

Txikitasunetik eta praktikatik, zein da lurrean ereingo duten estrategia? "Elikadura burujabetzaren estrategia eraikitzeari aukera eskaintzen dio Amillubik Euskal Herriari, aliantzen bidez. Ez dugu elikadura burujabetzarik, eta eskuragarritasunari buruz ere herritarroei askotan ahaztu egiten zaigu eguneroko elikagaiak ez dauzkagula bermatuta. Mugak itxiko balira, jaten dugunaren %10 soilik da bertakoa. Elikadura burujabetzaren estrategia definituta daukagu baina egiturak falta ditugu behar besteko eskala jauzirik emateko. Amillubik eman dezake aukera hori, Amillubin sendotu den aliantzen bideari jarraituta Hego Lurzaindia sortzen bada".

Amillubi proiektua abenduaren 1ean aurkeztu berri diete herritarrei Azpeitian, eta Durangoko Azokan dago hurrengo aurkezpena ikusteko aukera: aben-



50.000 metro koadro baso naturala.

Hiru solairuko etxebizitza. Guztira 514 metro koadro erabilgarri.

15.000 metro koadro aldapan dagoen belardia bordarekin.



Ioritz Aizpuru Goitia, Azpeitiko Elikaguneko langilea ere badena: bere lanaren bidez iritsi zen Biolurreko bazkide egitera 2019an. Myrian Imaz Juaristi, Emakumea* surflari projektuko kidea ere badena: iaz egin zen Biolurreko bazkide, elikadurarekiko ardurak bultzatuta. Mirene Begiristain Zubillaga, Biolurreko talde koordinatzaileko kidea ere badena: 1995ean egin zen Biolurreko bazkide, nekazaritza ekologikoaren ikerketak inguratu baitzuten elkartera.

Indartsu dago Biolur, bere urteurrenean: 320 bazkideetik gora ditu, horietatik erdiak baserritarrak eta beste erdiak herritar eta eragileak. Biolur ezagutu nahi duenarentzat, eta bertako bazkide eginez Amillubiri sustengu iraunkorra eman nahi dionarentzat, atek zabalik dituzte.

Indartsu eta sasoiko dago, bai, Biolur, eta poza ematen du ikusteak zein den Amillubi projektuko lantaldean nagusi den profila: emakume* laborari edota gazteak.

“GIPUZKOAN EZ DAGO HORRELAKO BESTE LURRIK”

Bioaniztasunean paraje aberatsa da Amillubi. Urola ibaiaren U formako meandroak bizigune berezia egiten du. Horrela azaldu digute hiru kideek: "Erriberako lurrik beti izan dira emankorrak. Amillubiko lurrik balio agroekologiko handikoak dira, sakonera handia dute, eta ibai ondoan egon arren ez dago arriskurik eremu hori uholdeek harrapatzeko". Lur emankorraz gain, Amillubiren beste altxorra ura da: "Klima larrialdiaren testuinguruan, ura arazo handia da eta Amillubin ura ziurtatuago dago, meandroan kokatuta dagoelako, batetik, eta mendiurak ere jasotzen dituelako, bestetik".

Ohartarazi dute egun Gipuzkoan ez dagoela laborantzarako horrelako

baldintzak dituen lurrik: lur eremu zabal eta laua, emankorra eta logistikoki ongi kokatua dagoena bertan sortutako elikagaiak herritarrenganaino erraz eramateko... Zer gertatu da, bada, gure herrietako lur emankorrekin, gaur egun Amillubi salbuespena izan dadin? "Gure nekazaritza lur onenak artifizializatu egin dira, etxeak, enpresak, errepideak eta azpiegiturak egiteko. Lehentasuna beste erabilera batzuei ematen zaie eta nekazaritza ez da estrategiko gisa ikusten. Etxebizitzetara, industriara eta mugikortasunerara joan dira nekazaritza lur onenak, bereziki Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa Garaian eta Lapurdin".

AGROEKOLOGIA, ETORKIZUNEN ELIKADURA

Esanguratsua da 2023 amaieran estrategikotzat jotzen diren bi proiektu abiatuko direla Gipuzkoan: bata Amillubi, agroekologikoa, lurraren kolektibizazioan oinarritua eta elikadura burujabetza helburu duena. Eta bestea Donostiako parke teknologikoan, haragi industriaren mundu mailako multinazional handienarena, bioteknologian oinarritua, haragi sintetikoa egingo duena eta Europa osora gehien inportatuko duena izatearekin harrotzen dena. Etorkizuneko elikadura zein izango den dago jokoan momentu honetan.

Bodegas Lezaun

ERRETEGIA - JATETXEA

TAXI ZERBITZUA

MAHASTI ETA ARDO
EKOLOGIKOAK.
LEZAUN / EGIARTE

BISITA ARDOEKIN 3€
ARDO DASTAKETAK 7€

MAHASTEGIRA IBILALDIA
ZALDI-GURDIZ.

10€ 5€

DASTAKETA MENUA:
HASTEKO, GARAICO PRODUKTU
EKOLOGIKOAK.
TXINGARRETAN ERRETAKO
HARAGI ETA ARRAINAK.
POSTRE DASTAKETA.
LEZAUNGO KAFE ETA ARDOAK.

● LAKAR - A12 IRTEERA 34

● LIZARRA A-12 ● IRUÑEA

📍 EGIARTE1, 31292 LAKAR (NAFARROA)
☎ ERRETEGIA: 948 541 231
☎ BODEGA: 948 541 339
WWW.LEZAUN.COM INFO@LEZAUN.COM

Zergatik Amillubi?

- 1/ Lehen sektoreak daukan lurraren beharrari erantzuten dio, oso baldintza egokietan.
- 2/ Balio agroekologiko handiko eremua da: lurrak oso emankorrak dira eta lauak.
- 3/ Urola ibaiaren meandroan egonik, ura eskura dago.
- 4/ Logistikoki oso ongi kokatuta dago bertan sortutako elikagaiak saltokietara banatzeko.
- 5/ Gipuzkoan ez dago horrelako baldintzetan lantzeko lur askorik.
- 6/ Amillubirekin muga egiten duten lurrek aukera ematen dute etorkizunean proiektua hazteko: Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa den 26 hektareako lur eremua da, nekazaritza kalifikazioa duena.

Zer egingo da bertan?

- 1/ Ekoizleei (dagoeneko elikagaiak sortzen dituztenei zein berriei) lurra utziko die, baldintza onetan.
- 2/ Lan baldintza duinak sortu nahi dituzte laborarientzat, modu kolektiboan.
- 3/ Elikagaiak sortu: Urola bailarako elikadura sistemari elikagaiak jarriko dizkio eskura.
- 4/ Orain ari dira proiektu zehatzak aztertzen, udaberrian lurrak nola martxan jarri erabakitzeko. Biolurreko ekoizleek beren beharrei erantzuteko hainbat proiektu proposatu dituzte eta horiek izan daitezke Amillubin lehenik gauzatuko direnak. Aurrerago landu daitezkeen proiektu hauek identifikatu dituzte:
 - 5/ Landare ekologikoen mintegia jarri.
 - 6/ Laborantza agroekologikoaren esperimendazio gunea izan.
 - 7/ Tresneria amankomuna gordetzeko gunea izan.
 - 8/ Elikagaien hornikuntza gunea izan.
 - 9/ Laborantzan hasi nahi dutenentzat trebaleku funtzioa bete.
 - 10/ Formazio eta sentsibilizazio saioak egin.
 - 11/ ...



390.000 € lortu beharra: herritarrei metro koadroa babesteko deia

Nekazaritza ekologikoaren aldeko Biolur elkarteak bankuekin zorpetu gabe erosi nahi ditu Amillubi baserria eta bere lurrak. 390.000 euro behar ditu erosketa egin eta baserria eraberritzeko lanetarako. Biolurreko kideek Amillubi saldu dien familiaren jarrera eskertu dute: "Ez du lurrarekin espekulatu eta beti izan dute prestutasun handia ordainketa errazteko. Bi urtetan ordainduko dugu, hainbat epetan. Horrek erraztu digu denboran hainbat ekimen egin ahal izatea dirua biltzeko".

Kopuru hori osatzeko, lehenik Biolurkideengana jo zuten: baserritarrek, herritarrek eta eragileek osatzen dute Biolurren bazkidegoa. Ondoren, hainbat udalen babesa bilatu dute, baita enpresena ere.

Orain, herritarrei luzatu diete deia, maiatzera bitarte bakoitzak Amillubiko metro koadro bat babestu dezan, 50 - 100 - 200 euroko edo nahi den kopuruko ekarpena eginda. Horretarako, Koop57-rekin antolatu dute internetez dirua biltzeko kanpaina eta ekarpena modu errazean egin daiteke www.amillubi.eus webgunera sartuta. Nahiago duenak, zuzenean kontu korronte honetan egin dezake ekarpena: ES37 1550 0001 2400 1666 3726 Bonolaguntzak ere atera dituzte, Durangoko Azokako egunetan elizaren arkupean eskuratu ahaliko direnak. Amillubiren alde dirua biltzeko herrietan ekimenak antolatzea izan daiteke proiektua laguntzeko beste modu bat.

Herritarren ekarpenekin maiatzera bitarte 150.000 euro biltzea du Biolurrek helburu. Bitartean, udal, erakunde eta enpresa gehiagorekin aliantzak josten jarraituko du.



Biolur elkartearen aliantzak Amillubi proiektuan

Ekoizpenarekin lotutako eragileak: Ekolurra, Lurzaindia, EHKOLEktiboa, Errez, Kimubat, Alkartasuna, Tantai, Leartiker **Kontsumo elkarteak:** Elikagunea, Ereindajan, Lakari, Biziola **Erakunde publikoak:** Udalbiltza eta Zestoa, Azpeitia, Aizarnazabal, Zumaia eta Oñatiko udalak **Ekonomia sozialeko eragileak:** Olatukoop, Goiener, Coop57, Talaios **Komunikabideak:** ARGIA, Berria, Danbolin, Urola Komunikazio Taldea **Eragile sozialak:** Zumardia **Eta oraindik etortzeko daudenak: ...**




ARGIA Biolurrekin eta Alkartasuna kooperatibarekin biltzen da urtero *Ilargiaren Egutegia* lantzeko. Pandemia garaian indartu zen Biolurren eta ARGIAren arteko harremana, beste hainbat eragilerek batera Lurra Herriari Deika kamisetak atera zituztenean, agroekologia mugimenduarekiko elkartasuna sustatzeko. Amillubi proiektuaren lantaldean parte hartzen ari da ARGIA.

Ioritz Aizpuruk hartu du hitza: "Inoiz baino garbiago dago, krisi klimatiko, energetiko eta gainerakoen testuinguru honetan, gure elikadura sortu behar dugula, lurrarekin errespetuzkoa den moduetan. Horregatik egin behar dugu agroekologia. Haragi sintetikoa batetik, laborategian ekoiztutako janaria bestetik... inoiz baino garrantzitsuagoa da alternatibak martxan jartzea". Myrian Imazek jarraitu dio: "Nik ez dut bestela ulertzen, benetako elikagaiak dira nire seme-alabentzat nahi ditudanak eta ez janari prozesatuak, artifizialak eta sortzen ari direnak. Ni horrek mugitzen nau bereziki. Ikusita inguruan gero eta osasun arazo gehiago ditugula... osasunaren ardura norberak izan behar du eta horrek narama sustraietara eta

txikira. Egitura asko eraitsi eta berriak eraiki behar ditugu, zentzuz". Mirene Begiristainek gehitu du: "Duela 30 urte Biolur sortu zenean, sortzaileek kontatzen dute nola begiratzen zieten 'hippie' moduan, eta ordurako European nekazaritza ekologikoan gauzak mugitzen ari ziren, hemengoek erreferente haiei begiratu zieten. Urte hauetan maila teknikoan asko ikasi eta aurreratu da. Agroekologiak mahai gainean jartzen ditu ekoizpen modu ekologikoaz gain beste dimentsio batzuk ere: bertan saltzea, baldintza duinetan, gure kulturari begiratuta... Egun, jada Europar Adierazpenak ere agroekologia onartzen du bide bat bezala eta Nazio Batuen Elikadurarako eta Laborantzarako Erakundeak (FAO gisa ezagutzen denak) dio na-

zioarte mailan agroekologia dela jarraitu beharreko bidea. Baina bi ekoizpen eta elikadura ereduen talka nabarmena da; 1970eko hamarkadan 'iraultza berdea' deitu zioten momentuan bezala, agroekologiak gaur egun ere talka egiten du beste interes batzuekin. Haragi artifiziala planteatzen dutenean, bioteknologiaren bidea bultzatzen dutenean... beste interes batzuei begira daude, ez daude planetaren eta pertsonen zaintzari eta osasunari begira".

Eta zuk? Nolako elikadura, nolako laborantza eta nolako ingurua nahi dituzu etorkizunerako? Etorkizun hori lantzeko urrats bat izan daiteke Amillubi proiektuko metro koadro bat lur babestea (ikus koadroan horretarako bideak). ●

 <p>Berriatua Elizateko Udala</p>		<p>EUSKARAREN EGUNeko EGITARAUA</p> <p>Jon Plazaola Bakarrizketa Abenduaren 10an, 19:00tan Mendibarren frontoian</p> <p>946 137 030 www.berriatua.org</p>
---	--	--

HELBURUETAN KALE EGINDA ERDITU DA HEZKUNTZA LEGEA

Bilatzen zuen babes sozial eta politikoa lortu gabe argi berdea eman diote EAEko Hezkuntza Legeari, Hezkuntza Batzordean. Hiru erronka zituen legeak: ikastetxe publiko eta kontzertatuen sistema duala gainditzea, ikasleen euskalduntzean jauzia ematea, eta ikasleen segregazioa amaitzea. Baina benetan kontzertazioa bukatzeko, euskalduntze hobea bermatzeko eta segregazioa gelditzeko neurri eraginkorrak al ditu legeak?

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Oposizio politiko guztiaren kontrako botoekin eman diote argi berdea legeari EAJ eta PSEk. Zer gertatu da bidean, atxikimenduak gehitu ordez babes sozial eta politikoa galtzen joateko? Zein asmo zituen eta azkenean zer dakar legeak? Saltsan sartu aurretik, kronologia apur bat.

Hezkuntza lege berri bat onartzea aspaldiko apustu anbiziotsua izan da Eusko Jaurlaritzarentzat. 2013an, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburu zela, Heziberri 2020 plana abiatu zuten, hezkuntza legea sortzeko azken xedearekin. Baina iritsi zen 2020a, eta Hezkuntza Sailak apenas aurkeztu zuen zirriborro bat Eusko Legebiltzarrean, hezkuntza komunitatearen eta alderdi politikoen adostasunik ez zuena eta kritika ugari jaso zituena. Gainera, urteotan guztiotan iraun duen txinparta piztu zen: ikastetxeen finantzazio eta baliabide banaketa berri baten aukerak ikastetxe publiko eta kontzertatuen arteko harremana gaiztotu zuen.

Jokin Bildarratzek hartu zuen Uriarteren lekukoa sailburutzan, baita patata beroa ere: legea egiteko enkargua. Kallean hasieratik agertu zen ezkor sektore

zabal bat, baina arlo politikoan adostasunerako eta elkargunerako giroa nagusitu zela zirudien, eta Legebiltzarreko ordezkari politikoaren %90ak babestutako hezkuntza ituna sinatu zuten 2022ko martxoaren 18an: EAJ, EH Bildu, Elkarrekin Podemos-IU eta PSEk adostutako 43 neurri.

Urtebete pasatxo baino ez da igaro, eta zein zaharkitua geratu den argazkia. Jaurlaritzak aurkezturiko lege aurreproiektuak ez zituen konbentzitu akordioan parte hartu zuten alderdiak, lausoegia zela nabarmendu zuten, edukien hustuketa egon zela akordiotik aurreproiektura. Gerora, Elkarrekin Podemos gurditik jaitsi zen, legeak egungo kontzertazio eredu batetik betikotzen duela eta eskola segregazioari aurre egiteko konpromisoa falta zaiola argudiatuta; eta azken unean, legeak egungo hizkuntza ereduak aipatuko dituela-eta (PSEk hala eskatuta), EH Bildu ere akordiotik jausi da. Azken txanpara ahulduta iritsi den legeari argi berdea eman dio Hezkuntza Batzordeak, eta datorren abenduaren 21ean Eusko Legebiltzarrean onartuko litzateke, ordezkari politikoaren %54ak babestuta, hasierako %90etik

urrun.

Hezkuntza munduan ere, hasieratik kritiko agertu ziren ahotsei beste batzuk batu zaizkie. Hainbat mobilizazio, bi greba egun eta eragile ugariaren desadostasuna utzi ditu prozesuak, batik bat eskola publikoaren eta euskalgintza-aren bueltakoak; hain da handia sektore batzuetan nabari den kontrakotasuna, ezen kolokan jartzen duen legearen zilegitasun soziala. Zuzenean legea atzera bota eta bertan behera uzteko Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak berriki antolatutako manifestazioarekin bat egin zuten EHIGE, Heize, Ikasle Abertzaleak, Ikasle Ekintza, Gazte Komunista, Ikasleen Sindikatua, STEILAS, ELA, ESK eta CCOO. Handik gutxira, legea berrabiatzeko eta prozesua zerotik hasteko eskatu dute EHUKo Hezkuntza fakultateetako 37 irakaslek.

Lege prozesuak aurrera egin ahala mesfidantza handitzen joan da hainbatengan. Eskola antolakuntzan aditu den Gonzalo Larruzea, nolabait, bada horren adibide. Hezkuntza Batzordean behin baino gehiagotan parte hartu du aditu gisa, eta ezkorrago mintzatu da azken saioetan. Legea irekiegia dela salatu



Jokin Bildarratzek hartu zuen Uriarteren lekukoa sailburutzan, baita patata beroa ere: hezkuntza lege bat egiteko enkargua.

OSKAR MATXIN / FOKU

du, eta ondorioz, mesfidantza elikatzen duela, unean uneko Hezkuntza Sailari eskuak libre uzten dizkiolako zein norabide hartu erabakitzeko. Are, Hezkuntza Sailak berak bultzatu du eskuak gehiegi lotuko ez dituen lege bat, beste lege batzuekin konparatuta malguagoa. EAJren esanetan, "legeak bizi luzea izan dezan" jokatu du modu horretan, baina zein zentzu du, akordioan adostutako neurriak finkatzeko eta bermatzeko adina zehaztasunik ez badu?

DENA DA PUBLIKOA?

Itunpeko ikastetxeei "etxeko lanak" jarri eta egungo eredu duala (ikasleen %50 inguru hartzen du sare publikoak eta beste %50 itunpeko sareak) irauli nahi omen zuen Euskal Hezkuntza Zerbitzua deituriko formulak (legearen zutabe nagusietakoa). Eskola publikoa hazteko neurriak ere hartuko omen ziren, baina ez ote den kontrakoa lortu: itunzte sistema unibertsal eta eredu duala betikotzea.

Eskola publikoaren bueltako eragile ugari lehen unetik kritikatu zuten formula: teoriarik, betebeharrak batzuei erantzuten dien ikastetxe oro Euskal

Hezkuntza Sailak berak bultzatu du eskuak gehiegi lotuko ez dituen lege bat, baina zein zentzu du, akordioan adostutakoa bermatzeko adina zehaztasunik ez badu?

Hezkuntza Zerbitzuaren parte izango da eta %100eko finantzazio publikoa jasoko du (ordainetan, ezingo zaie ikasle eta familiei kuotarik kobratu). Formula horrek ikastetxe publiko eta kontzertatuak maila berean jartzen dituela, ez dela eskola publikoa hazteko ezta dituen arazoei aurre egiteko neurri eraginkorrik hartzen, eta ondorioz eskola publikoaren kalterako eta hezkuntzaren pribatizaziorako bidea dela salatu zuten hasieratik; gogoratu dezagun, EAJk

adibidez Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa deitzen diola zerbitzu honi, alegia "publikoa" hitza eranstean diola, ikastetxe guztiek zerbitzu publikoa ematen dutela nabarmendu eta beraz publikotasunaren kontzeptua zabalduz. Beste formula baten alde egin zuten eragile kritikoek: ikastetxe kontzertatuei publikifikatzeko (titulartasun publikoko eskola bihurtzeko) aukera ematea eta lehen-tasuneko formula izatea, baina legean xedapen gehigarri gisa baino ez da ageri aukera hori.

Beste eragile batzuek balekotzat eman zuten Euskal Hezkuntza Zerbitzua hasieran, baina legeak jasotzen duen moduan ez duela funtzionatuko ikusi dute ondoren. Legeak dio zerbitzuaren parte izateko hainbat betebeharrak erantzun behar diola ikastetxeak (irabazi-asmorik eza; segregazioaren aurkako konpromisoa; euskara lehenestea...), baina betebeharrak betebeharrak, praktikan ez dago zentrorik kanpoan geratuko denik, itunpeko guztiak automatikoki izango dira zerbitzuaren parte eta jasoko dute %100eko finantzazioa, denak berdinuko dituzte legeak, denak izango dira interes sozialeko. Hala ondorioztatu dute akor-



Bildarratzek prozesua martxan jarri eta kalean hasieratik agertu zen ezkor sektore zabal bat, baina arlo politikoan adostasunerako giroa nagusitu zela zirudien. EAJ, EH Bildu, Elkarrekin Podemos-IU eta PSEk hezkuntza akordioa sinatu zuten 2022ko martxoan. Urtebete pasatxo igarota, zein zaharkitua geratu den argazkia. Lehenengo Elkarrekin Podemos jaitsi zen gurditik, ondoren EH Bildu. Azkenean, EAJk eta PSEk baino ez dute legea babestuko, ordezkaritza politikoaren %54ak, hasierako %90etik urrun.



dioan formula babestu zuten EH Bildu, PSE eta Elkarrekin Podemosek ere, legeak formula nola jasotzen duen ikusi ostean. EAJren ordezkarik Leixuri Arrizabalagak berak aitortu zigun: "Kostatzen da sinesten ikastetxeren bat kanpoan geratuko denik". Adibide bat jartzearen, ikastetxei jarritako betebeharren artean dago laikotasuna, beraz nola eragingo dio horrek Kristau Eskolari? Zein aldaketa egingo dituzte itunpeko ikastetxe horiek Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte izateko? Ez dute inongo aldaketarik egin behar, legeak ahalbidetzen du ikastetxe bat aldi berean laikoak eta kristauak izatea.

Betebeharrak arautzeko eta beteazteko (tartean isun bidez) zuzenketak aurkeztu dizkio lege proiektuari EH Bilduk, baina salatu du ez zaizkiola zuzenketak onartu: itunpekoei "eskubideak ematen zaizkie, betebeharrak ez; ez dago filtrorik zerbitzu publikoaren parte izateko, hori pagotxa!", adierazi du Ikoitz Arrese EH Bilduko kideak. Euskal Hezkuntza Zerbitzuak akordiotik legera egin duen ibilbidea kritikatu du Gonzalo Larruzeak ere: "Zerumuga zen eskola publikoaren hazkuntza kuantitatibo eta kualitatiboa, eta hori bateragarria da eskola kontzertatuak egotearekin, beti ere ongi zehaztuta zeintzuek duten interes sozial eta publikoa, baina iritsi gara egitura bat sortzera zentro guztiei publiko izaera emateko. Akordioan esan zen eztabaida parlamentarioa egingo zela, erabakitzeko betebeharrak eta horiek betearazteko tresnak, baina ez da hala-

Publiko nahiz kontzertatu, denak multzo berean kabitzen badira, praktikan inongo konpromiso errealik gabe, ez al da izango antzera jarraitzea, baina finantzaketa berdinduta eta estatus bera emanda?

korik egin, zehaztasunik gabeko printzipio batzuk jarri dira, irizpiderik eta egiaztatzeko neurririk gabe, eta horiek betetzeko eperik finkatu gabe. Bereziki larria da irizpiderik eta eperik eza. Horrek guztiak bide ematen dio ituntze unibertsala betikotzeari".

Denak multzo berean kabitzen badira, praktikan inongo konpromiso errealik gabe, ez al da izango antzera jarraitzea, baina finantzaketa berdinduta eta estatus bera emanda? Ez al da lehia berdin-berdin mantenduko, eta ondorioz, baita segregazioa ere? Egungo joko-zelaia eskolen arteko lehia gisa planteatuta dagoela aintzat hartuta, zein aterako da lehia horretan "irabazle"? Eskola publikoko eragileek garbi dute: legeak jaso behar zuena da eskola publikoarentzako

plan propio eta estrategiko bat, dituen arazo eta beharrei erantzungo diena eta eskola publikoa hezkuntza sistemaren sare nagusi eta egituratzaile bihurtuko duena (oinarri ideologikoak, hezkuntza-printzipioak, finantzaketa, izaera publikoko eskola-plazaren plangintza, kudeaketa eta sorrera, hezkuntza-guneen pedagogia, antolaketa-baliabideak, eskola-curriculum sozio-kritikoa, hezkuntza-berrikuntza soziala, giza baliabideen hornidura eta egonkortasuna...)

EUSKALDUNTZE EREDU BERRIAK ZER DAKAR ZEHAZKI?

Egungo A, B eta D hizkuntza-ereduak mantentzen direla aipatzen du legeak, PSEk hala eskatu eta EAJrekin adostuta. Erabaki horrek ekarri du EH Bilduk legea ez babestea, baina hizkuntza-ereduen aipamenetik harago, ikasleak euskalduntzeko legeak duen planteamendurekin kritikoa da euskalgintza. Are, euskalgintzatik egindako aldarriei "bizkarra eman" zaiela eta "lege honi ezeiko borobila" ematen diola esan du Euskal Herriaren Euskarazek.

"Euskara ardatz duen sistema elea-niztuna" du oinarri legeak: derrigorrezko hezkuntza bukatzean euskaraz B2 maila lortu behar dute ikasleak (gaztelaniaz ere B2, eta hirugarren hizkuntza batean B1), eta helburu hori buruan, ikastetxe bakoitzak bere proiektu linguistiko propioa egin behar du, ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa abiapuntu hartuta. Batetik, zehaztasun faltak alarmak piztu ditu eta eragile uga-



ri kexu da (Euskalgintzaren Kontseilua, eskola publikoa, Ikastolen Elkartea...) legeak ez duelako esaten zenbat ikastordu eman behar diren euskaraz, zein proportziotan izan behar duen euskarak irakats- eta ikas-hizkuntza. Egungo murgiltze edo D eredia urardotzea ahalbidetzen du legeak, esaterako ikasgai batzuk atzerriko hizkuntzan ematea erabakitzen badu ikastetxeak. Mesfidantza sortzea ez da arraroa, Jokin Bildarratzek jarritako etsenplua gogora ekarrita: "Ikastetxe batek, gaztelania nagusi den eremu batean kokatua, erabaki dezake irakastorduen %80 gaztelaniaz ematea, baina aldi berean, noizean behin, euskara hobeto ikasteko hiru eguneko barne-tegira eraman ditzake haurrak, edo eskolaz kanpoko jarduera guztiak euskaraz antolatu, edo jangelako orduak...". Alegia, testuinguru soziolinguistiko erdalduna aitzakia izan daitekeela ikas-

Zehaztasun faltak alarmak piztu ditu, legeak ez duelako esaten zenbat ikastordu eman behar diren euskaraz, zein proportziotan izan behar duen euskarak irakats- eta ikas-hizkuntza

tordu gehienak euskaraz ez emateko. Helburua euskalduntzea baldin bada, ordea, ez al da hain justu testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan murgiltze eredia aldarrikatu behar, ez al da bermatu behar baliabide gehiago eta

euskara ordu ahalik eta gehien euskalduntzeak ahalgin handiagoa eskatuko duen taldeetan? Kontseiluak garbi du: hezkuntzak behar du "euskara ikas- eta irakats-hizkuntza normalizatua izango duen ikasteredu orokortu inklusiboa, murgiltze eta mantentze eredian oinarritua". Azken finean, esperientziak erakutsi du D eredia edo murgiltze eta mantentze eredia dela ikasleak euskalduntzeko eredurik arrakastatsuena.

Sistemaren zehaztasun faltaz galde-tuta, EH Bilduko Ikoitz Arresek erantzun zigun berretzat gakoak dela legeak dakarren berrikuntza: "Ikasle guztiak B2 bermatu behar dute bukaeran, eta hori ebaluazio jakin baten bidez justifikatu beharko dute ikastetxeek". Hori ere auzitan jarri du Euskal Eskola Publikoaz Harro Topaguneak, azpimarratu baitu eskaera horrek ez duela baldintzatuko titulazioa lortzea.



Goizper Group
Elkarlanean garatzen



Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofia-riaren parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrialia

Ihinzadura

Bioteknologia



www.goizper.com

Bestetik, ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektu propioa garatu behar izateak ere sortu du eztabaida. Ez al da pisu gehiegi jartzen eskola komunitatearen bizkar? Beste era batera esanda, araudi irmo baten babesik gabe, eskola komunitate horretako euskaltzaileen borroka bihurtuko al da (berriro ere) hizkuntza proiektuan euskara benetan ardatz izatea bermatzeko erronka? Hizkuntza proiektu euskaldunagoa edo erdaldunagoa duen ikastetxeak ez al du familien aukeraketan eraginik izango? Izan ere, auzo berean egon daitezke bi ikastetxe soziolinguistikoki oso ezberdinak, eta ikastetxe horietako bakoitzak ikastetxean duen errealitatearen arabera hizkuntza proiektua garatzen badu, ez al du eskolako errealitate soziolinguistikoki hori (eta ondorioz segregazioa, bazterkeria, ghetifikazioa) betikotuko?

ZAURGARRIEN BANAKETA

Eskola publikoak egoera zaurgarrian bizi diren ikasle askoz gehiago jasotzen du kontzertatuak baino, eta eskola publikoaren baitan ere "ghetto ikastetxeak" daude, duten zaurgarritasun indize altuagatik. Lege honek horri buelta ematea erronka nagusizat hartu zuten alderdi politikoek. Landu berri ditugun bi puntuek, baina, ez al dute segregazioan sakontzeko arriskua areagotzen? Euskal Hezkuntza Zerbitzuak ikastetxe guztiei estatus bera eta %100eko finantzaketa ematen dien heinean, eta aldi berean eskola publikoaren arabera euren arazoei konponbidea ematen ez zaienez (zaurgarritasun indize handiak, irakasleen behin-behinekotasun portzentaje altua, azpiegitura arazoak...), ikasleen banaketa desorekatuari ez al dio bide emango? Eta euskalduntzearen kasuan, aipatu dugun moduan hizkun-

Kontratu programak ere iragartzen ditu legeak: baliabideak berrikuntza ekimen interesgarrien arabera banatzeak ez al du zatiketa areagotuko?

tza proiektuak ez al dira segregaziorako faktore bat gehiago izango? Ikastetxeen berrikuntza proiektuei lotuta, kontratu programak ere iragartzen ditu legeak: baliabideak berrikuntza ekimen interesgarrien arabera banatzeak ere ez al du zatiketa areagotuko, jakinik ikastetxe batzuek beste batzuek baino gaitasun handiagoa dutela berrikuntzan urratsak emateko? Gogora dezagun, jaiotze tasa jaisten ari da, etorkizuneko panoramak ikasle gutxiago aurreikusten du, eta gauzak asko aldatu ezean, geratzen diren ikasleak erakartzeko lehia nagusitu daiteke, ea zein ikastetxek biziraungo duen, ea zeinek itxi beharko dituen atea...

Segregazioari aurre egiteko legeak propio hartutako neurrietara bagoaz, zaurgarritasun indizea finkatu da, kuotarik ez kobratzeko doakotasuna kontrolatuko duen unitate administratiboa aipatzen da, eragin-eremu bakoitzean ikastetxe publiko bat egotea bermatu da eta eskolek plaza kopuru jakin bat gorde behar dute ikasle zaurgarrientzako. Dagoeneko ikasturte honetako

matrikulazio prozesurako aplikatu diren neurrietan, baina, ikusi dugu plazak gordetzea *a posteriori* egin dela, ez aurrez; eragin-eremuko ikastetxe publiko bat egon arren eragin-eremua handitu egin dela (eta beraz, zure herrian ez, ondokoan egokitu dakizukeela plaza publikoa, ondoko herria eragin-eremuaren barruan dagoela argudiatuta); baremazioa ordezkartzeko organo gorenak erabakitzen jarraitu duela; edota plazen gain-eskaintza mantendu dela (nahiz eta legeak dioen "gaineskaintza eta azpieskaintza saihestuko dira"). Eskola Inklusiboaren Aldeko Elkarteak, Zubiak Eraikiz plataformak eta Save The Children erakundeak gisako eragileen aburuz, legeak neurri gehiago har ditzake segregazioari aurre egiteko, eta besteak beste eskatu dute ikastetxe bakoitzari ikasle zaurgarri portzentaje bat eskatzea eta matrikulazio bulego bateratu eta bakarria ezartzea.

ETA ABAR, ETA ABAR

Legeak gai gehiago ere jorratzen ditu, jakina. Begi onez ikusitako akordioak daude (haurreskolen doakotasuna kasu), eta beste batzuek kritikak hauspotu dituzte (aipaturiko kontratu programen bidez garatzea autonomia; iragarritako hezkuntzaren deszentralizazioan tokian tokiko erakundeek izan behar zuten protagonismo altua eta azkenean izango duten protagonismo mugatua; digitalizazio etiko, arduratsua eta euskaldun baten aldeko urrats eraginkorragoak ez eman izana, Hezkuntzan Librezele taldearen esanetan...). Baina oro har, publikotasunak, euskarak eta segregazioak sortu dute hazkura gehien, legeak duen babes politiko eta soziala kolokan jartzeraino. Konfrontazio giroan abiatu da anbiziotsu amestuz Hezkuntza Legea. ●





Oliv1948

Boutique Hotela



Kalezar, 83 - 20170 USURBIL (Gipuzkoa)
T.: (+34) 943 060 434 - M.: (+34) 654 625 025
www.olivi1948.com · reservas@olivi1948.com



Oliv
Erretegia



Parrillan maisuak!



SAIZAR Baserria, Kalezar, 39 - 20170 USURBIL (Gipuzkoa)
T.: (+34) 943 788 448
www.asadorolivi.com · reservas@asadorolivi.com

HIRU LORE HORI ILUNTASUNARI



GARBIÑE LARREA ITURRALDE



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Gauak luze eta egunak gero eta ilunago ditugun garai honetan zuetako askok argi falta nozitu-ko du ziurrenik. Tristura, nahigabea, gogo falta edo hotzera egokitu ezina izango duzue akaso, biziari gusturik hartu ezina ere bai bakarren batek.

Halako trantzea bizi duenari uda batean loratzen zaizkigun hiru lore hori gomendatu izan dizkiogu. Izan ere, eguzki erako hiru lore eder baditugu gure artean, elkarrekin hartuta aipatutako egoeretakako erremedio egokia osatuko digutenak. Ilena (*Calendula officinalis*) dugu bat; kamamila edo larranbiloa (*Chamaemelum nobile*) bestea eta Santio-belarra (*Hypericum perforatum*) hirugarrena. Horiaren eta laranja kolorearen bizitasuna dute eta eguzki ikurtzat irakurriak izan dira denak.

Udako solstizioaren inguruan loratzen dira indar betez. Hori bai, ez goaz hemen eperik ezartzera badaezpada ere, eguraldia eta lekuaren ezaugarrien araber epeak aldakorrak baitira. Eguzkiari

begiratzen diotela badakigu eta eguzki argi asko pilatzen dutela ere bai, udazkeneko iluntasunean edo neguko hoztasunean gaudela oso eskergarri izango zaizkigu. Norbere argi faltan lore hauek eman diezaguketena baliagarri zaigu nonbait.

Hiruren kasuan lore buruak lehortzen dira eta osorik jaso, garaia denean. Ondoren hirurak kopuru berean nahastu eta infusioa presta dezakegu, 250 ml ur irakin, sua itzali eta postreko bi kol-larakada ipiniko ditugu, bost minutuz tapatuta eduki ondoren iragaziz. Egunean infusio bat afalondoren hartzea da gomendioa. Bederatziurrena eginez edo berrogeialdia osatuz, hori bakoitzaren barru giroak eta aldarreak aginduko du.

Ilena eta kamamila ezin dira haurdunaldian erabili eta asterazea familiako landareei alergia izanez gero ere ez, biak ala biak asterazea familia botanikoko landare belarkarak baitira. Santio-belarra haurdunaldian eta edoskitzaroon ezin da erabili, arrisku potentzialengatik

eta behar bezala ikertu gabe dagoelako.

Hala ere, badira traba gehiago Santio-belarra hartzeko orduan. Izan ere, depresio arinen tratamendurako erabili izan da eta jakin behar da depresioaren kontrako botikek eragin ohi dituzten arazoak eragin ahal dituela, hau da; urdaileko arazoak, urduritasuna, buruko mina, ahoa lehortzea eta gosea eragitea. Ez dira ohiko erreakzioak baina bai gerta daitezkeenak.

Buruak gaitzetarako hartzen diren botikekin ez da bateragarria. Ezta analgesikoak, anestesikoak, antisorgailuak, antirretobiralak, digoxina, tiroxina, botika antiaritmikoak eta onkologikoak hartzen direnean ere.

Ez ahaztu Santio-belarraren infusioa hartutakoan edo ukendua erabilitakoan ez dela eguzkirik hartu behar. Izan ere, hiperizina izeneko printzipio aktiboak fotosentsible bihurtzen du eta larruazalean orbanak aterako zaizkigu. Horregatik gomendatzen dugu argi gutxi den garai hauetan eta gaez erabiltzea. ●




Nafarroako
Txistorra

**ADIERAZPEN
GEOGRAFIKO
BERRIA**



A ZE FAUNA!

KOROARIK GABEKO ERREGINA, ILUNTASUNEAN, GORRIA



ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Gure kostaldeko jate-txeetan arrain prezia-tuenaren inguruan galdetuz gero, gehien-gehienek bisigua aipatuko luke-te. Belaunaldi zaharragoek hobe ezagutu zuten. Gaur egun ordea, nekez topatuko dugu, bai itsasoan, baita gure mahaletako plateretan ere. Baina hemen doa-kizue aste honetarako erronka. Arrandegiko erakusmahai au-rrean zaudetenean, erreparatu bisiguaren ondoan dagoen ger-tuko ahaide horri. Izan ere, bada burualdea antzekoa izanik, gorputzaren itxura zeharo ezberdina duen arrain bat, kolore gorri nabarmena duena...

Gaztelera *“rey”* modura agertuko da. Hori gutxi balitz, Espainiako hainbat lekutan *“alfonsino”* edo *“virrey”* modura ere bai –bat edo beste, monarkia presen-te, beti ere-. Gure hiztegiak ordea, arrain askoren kasuan bezala, badu tartea hitz jokoetarako. Bizkaiko hainbat herritan *“errege”* edo *“bisiguen errege”* izanik, beste portu batzuetan erreginak gorai-patu eiz zituzten, *“bisigu-erregin”* modu-rua izendatuta. Izenak izen, oroitu ondo, arrain hau gorria da, nabarmen; eta ez du koroarik. Gainera, sukaldari onenen artean askorentzat bisiguari gailentzen zaion haragi zuri trinkoa du, itsaski za-pore goxoarekin; horregatik ote, *“itsaso-ko erregin”* modura ere ezaguna izatea?

Haren begiak, bisiguaren aldean txi-kiagoak, ez dira oharkabeen pasatzen. Eta bide batez, begion tamainak bere bizimoduaren inguruko informazioa



ENEKO BACHILLER

ematen digu. Zertarako begi handiak? Ondo ikusteko. Tira, baina, hain han-diak? Ilunpetan ondo ikusteko. Sako-nera handietan, 200 metro ingurura, argia nekez heltzen da, eta bertan bisigu-erregina gai da besteak beste arrain txikiagoak, krustazeoak edota txipiroi txikiak harrapatzeko, baita harrapakari handiangoengandik ihes egiteko ere, edo saiatzeko bederen. Eta agian harrapari hauen aurrean oharkabeen igarotzeko, nahiz bestelako abantailak lortzen di-tuztelako, espezie hau taldekoa da, sar-da handitan elkartzten dena.

Irudikatu, beraz, itsaspeko inguru ilun, hotz eta malkartsua. Gure kostalde-ko itsasoko ura kenduko bagenu, aurrez aurre lautada bat izango genuke, eta bat-batean, amildegia, sakonera handietara erortzen dena. Bada, amildegi horretan bizi da bisigu-erregina, *“ezponda konti-ental”* modura ezagutzen den horretan, eta horren aurreko plataforma konti-entalaren hegian. Euskaldunen mendi-zaletasunarekin bat egiten duen arrain

BISIGU-ERREGINA

Beryx decadactylus

TALDEA: Ornoduna / Arraina

NEURRIA: 25-50 cm

NON BIZI DA? Gazteak pelagikoak dira. Helduak bento-pelagikoak dira, 200 eta 800 metroko sakonera tartean taldekatzen dira.

ZER JATEN DU? Arrainak, krustazeoak eta zefalopodo txikiak.

BABES MAILA: Europa mailan babestua.

honek, Asturiasko mendiak ere gustuko ditu. Bertan bada Cachucho deituriko mendi bat, 4.500 metroko altuera duena. Mendizalea zara, eta ez duzu ezagutzen? Ba hau Europako Mendietako tontor guztiak baino altuagoa da, eta kostaldetik 60 kilometrora baino ez dago! Hori bai, urpean. Haren ingu-ran harrapatzen zela-eta, as-turiarrek bisigu-arraina mendi honen izenarekin ezagutu izan dute XX. mende hasieratik.

Garai batean gure portuetan balio txikia zuen arraina zen, batez ere arrantzaleek eta haien ingurukoek jaten zuten horietakoa. Gaur egun ordea, gero eta garestiagoa eta preziatuagoa bilaka-tzen ari da. Hortaz, kontuz ibili behar-ko dugu, arrain hau gehiegi ezagutzera emango balitz, eta denbora-tarte labu-rrean ale handi asko arrantzatuz gero, ez baikenioke populazioari bizirauteko paradarik emango. Bisigu-erregin gaz-teak lehen urtean zehar azkar hazten badira ere, behin heldu bilakatzean, haien hazkuntza oso motela bihurtzen da, hein batean bizilekutzat duten ur-eremu hotzaren eraginez. Pentsa, inoiz 60 urtetik gorako aleak topatu izan dira! Orain arte hondoko tretzarekin, alez ale, amuz arrantzatu da, arrantza-arte hautakorrenetako baten bidez. Horrela izaten jarraitu dezan, eman diezaio-gun duen balioa, ahal dugun heinean das-tatuz, baina pasa gabe, gertuko ahaide duen bisiguaren gainbehera bera paira-tu ez dezan. ●

NAFARROATIK OSASUNA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Euskal Herrian gehien ekoizten den barazkia da, 70.270.000 kilo inguru; bai barazkia, ez soro erraldoietan egiten diren arto, labore eta abarretakoa. Nor den ezetz asmatu? Bai, azatarra da: brokolia (*Brassica oleracea var. italica*). Aza jendearen artean burutzen direnetakoa da. Mediterraneo aldetik datorkigu eta egun ezagutzen dugun barietate aukera, berrogeitik gora, gehienak italiarrek sortutakoak dira.

Brokolia eta *Brassicaceae* bere familiarako landare asko, batik bat aza jendea, osasunerako oso ona dela dio makina bat ikerketak. Azkenaldi honetan areago doaz azterketen emaitzak eta minbiziei aurre egiten dien janari gutxietakoak izatea aitortzen zaie.

Eta zeuk zenbat jaten duzu? Urtean batez beste kilo bat baino gutxiago jaten dugu euskaldunok. Gurea bezala kultura atlantikoa duten iparraldeko herrialdeetan hemen baino sona handiagoa du; urteko ia bost kilo jaten du, adibidez, erresuma batuar bakoitzak. Ipar horretara joaten da Nafarroako ekoizpenaren puskarik handiena. Izoztutako brokoli nafarra nonahi topatuko duzu han. Lantzen den brokoli gehiena izoztuekin lan egiten duten enpresetara bideratzen da.

Iaz 70.000.000 kilo brokoli eman zuten Nafarroan bere ekoizpenera emanak



FOREST ETA KIM STARR / CCO

ziren 5.503 hektareak. Erkatzeko, EAEn 270.000 kilo besterik ez, berari eskainitako 27 hektareatan. Nafarroan hainbestetarikoko sona duten beste ekoizpenekin konparantza egiteko iaz zainzuriari (*Asparagus officinalis*) 1.890 ha eman zitzaizkion, brokoliarenaren herena; eta orburuari (*Cynara cardunculus var. scolymus*) 985 ha eta piperrari (*Capsicum annum*) 930 ha besterik ez.

Etxean jartzekotan, udaberri osoan ereiten da, martxo aldera lehenak eta ekainean azkenak. Lehenak ekainean landutako dira eta azkenak irailean. Landatu

eta 100 egun ingurura jango dira lehenak eta azkenak 200 batera, udazken negu osoetan alegia. Erraza da bere langintza: eguzki begian lur gogor, landu gabe, ongari helduarekin ondo ongarritutako (3 kg/m²) eta karearekin edo errautsarekin gozatutakoan landatu, tarte politarekin (60-70 cm). Loratzera doan burua jaten dugu. Ez moztu landare osoa, burua bakarrik kendu, hostoak han utziz gero brokoli burutxo berrien bigarren uzta izango duzu.

Alfer kirakoa bazara edo lurrik ez baduzu, eutsi nekazari nafarrei eta jan brokolia, sasoa da, zeure onerako. ●

Ekologikoak gara, naturala delako



Euskal Herriko Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentua
Ekoizpen Ekologikoa
Código de Regulación y Garantía de Productos Agrícolas Ecológicos de Euzkadi



Europar Batasuna
Landa Ekologikoko Europako Nekazaritza Partea
https://ec.europa.eu/info/food-farming-fisheries/key-messages/eco-label_en



ELUSKO JAURLARITZA
EKOIZPEN EKOLOGIKOAK



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO RURAL Y AGRICULTURA ECOLÓGICA



ARBOLAREN BESTA

“IPARRALDEKO MINTEGI TXIKION ELKARGUNEA SORTZEA IZAN DA EKIMENAREN HELBURUA”



GARAZI ZABALETA

Azaroaren 26an ospatu zuten Biriatur lehenezko Arbolarren Besta. Audrey Hoc eta Aimar Rodríguezek bultzatu dute eguna, hango udalarekin elkarlanean. Aurtengoak formatu xumea izan arren, besta eguna urtero antolatzen segitzea dute asmo, eta pixkanaka egunari indar handiagoa ematea. “Iparraldeko mintegi txiki guztiak etorri dira lehen ediziora. Handiak ez, horiek gauzak egiteko beste modu bat dutelako. Intentzioa izan da gure arteko lotura egitea, jendea elkartzea, eta tokiko ekoizleen arbolak erosteko aukera ematea, multinazional handiei ez erosteko gisan”, adierazi dute bultzatzaileek.

BASO JANGARRIA ETXALARREN

Nafarroako herri okupatueta hasi zen Rodríguez baratze gintzan 2011 inguruan, eta Hoc-ek, berri, Etxalarren lantzen zuen lurra. “Han hasi ginen elkarrekin, biontzat lanean, 2017-2018ko neguan. 2.000 metro koadroko lur zatian baso jangarria dugu, permakulturan oinarritua”, dio Rodríguezek. 800 barietate inguru dituzte landatuak baso jangarrian. Printzipio nagusia natura imitatzea dela dio ekoizleak, estratu ezberdinak eginez: zuhaitz handiak, ertainak, bi metroko zuhaixkak, igokariak, zuhaixka txikiak, landare txikiak... “Bere kabuz funtzionatzen duen formatua da baso jangarria; landare bakoitzak hainbat funtzio ditu, baina jangarriak dira”.

Ainiza izeneko mintegia ere badute Etxalarren, zuhaitzak eta fruta arbolak ugaltzeko eta saltzeko. Horrez gain, Hoc-ek txertaketak egiten ikasteko ikastaroak ematen ditu, eta hari horri tiraka hasi zen proiektu zabalago bat garatzeko babes bila inguruko herrietan: “Duela bi urte inguru, Herriko Etxe askotara txostenak bidaltzen hasi nintzen, oihan baratze bat egiteko eta mintegia instalatzeko lurra



bilatzen nuela azalduz, herriaren autonomia garatzeko proiektu bat abiatzeko asmoz”. Biriaturekin konexio azkarra izan zuen: “Burutan nuen proiektua auzapezari azaldu nionean, hark esan zidan: ‘Zuk gure programa irakurri duzu!’”.

BIRIATUR BURUASKITASUNERAKO BIDEA LANTZEN

Biriatura lekualdatu dira orain gutxi Rodríguez eta Hoc, herrian buruaskitasuna lantzeko proiektu integrala abiatzeko asmoz. Momentuz, txertaketa tailerrak egin dituzte, eta Arbolarren Besta ere antolatu dute. “Aurrera begira, mila ideia ditugu buruan herriak autonomia garatzeko, biztanleek horretarako teknikak ikasteko. Ikusiko dugu zer egin daitekeen”, dio Hoc-ek.

Duela urtebete inguru, Iparraldeko mintegi txiki guztiek bilera egin zuten, eta ohartu ziren haien zuhaitzak saltzeko egun berezirik ez zutela inon. Horrela bururatu zitzaion azoka txiki bat antolatzeari, eta Biriatur bertan izatea proposatu zuten Rodríguezek eta Hoc-ek. “Ideia ongi ikusi zuten udalean ere. Azoka izan genuen egun guztian, eta landareen kantuak entzuteko aukera izan genuen: landareei elektrodo batzuk jarritz, haien abestiak entzun daitezke. Ederra da ikustea kantuok nola aldatzen diren inguruko energiaren arabera”, azaldu du Rodríguezek. Jende asko hurbildu zen arbolaren lehen bestara eta pozik agertu dira antolatzaileak. Hurrengo urtean, gehiago. ●

JOLASAK



MIKEL OLABIDE / ARGIA CC BY-SA

Ondorengoek gozatzuz irakur eta idatz dezaten

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Seme-alabek Gabonetan oporrak dituztela, zuk lana, eta irakasle hippie batzuk dituztenez egun horietarako etxeko lanik edukiko ez dutelako haserre zaude? Aiton-amonek bilobei bazkaria ematea beste lanik ez dutela eta haurrak mahaian eserarazi eta ordubete lanean jartzeko tarterik topatuko dutela sinetsita zaude? Ez izan zalantzarik eta eskuratu lehenbailehen *Hizki Pizti* jolas pedagogikoa! Etxeko txikien irakurtze- eta idazte-prozesuaren lehen pausoetan laguntzeaz gain, Euskal Herriko animaliak ezagutzeko aukera eskainiko dizu.

Liburua edo luma eskuan duen jendea irudikatzen dut gizarte osasuntsu batean. Idazteak edo irakurtzeak irekitzen duen sormen bidez gozaten duten herritarak. Heldu, haur eta gazte. Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna, baina, txikitatik landu beharrekoa da. Gozamenetik landu beharrekoa. Gozamenetik bizi dutenen erreferentziak emanez, etxetik hasita.

Haur Hezkuntzarekin batera hasten da irakurketa eta idazketaren abentura zirraragarria, gure bizitza osoan ezinbestekoa izango duguna elkar komunikatzeko, informazioa eskuratzeko edo zabaltzeko, etengabeko prestakuntzarako eta eguneroko bizitzarako. Baina prozesu hori umeez modu jostagarrian egin dezaten helduon eginkizuna da. Horregatik, haurrentzako erakargarria eta bizia izateko asmoz sortu dute baliabide hau, eta, gainera, Euskal Herriko animalien ezagutza handitzeko balio du. Iñaki Sanz-Azkue, Amaia Egidazu, Eñaut Aiertzagüena eta Lore Erriondo-oren lana eta jakintza daude produktu honen atzean.

NATURA ETA KULTURA UZTARTUZ

Karta-jolasa da. Jolasak, hobe esateko, hamaika baitira eskaintzen dituen aukerak. Kaxan badatoz zenbait proposamen, baina imajinarioari leihoa

Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei komunitatera!



“Kalitatezko kazetaritza euskaraz bultzatu nahi dudalako eta egun, Palestinaren auzia jarraitzen ari naizelako”.

Sarrigurendik Evak

“Momentuz guztiz independenteak zaretela uste dudalako, entitate publiko nahiz pribatuetatik aske”.

Aramaiotik Anderrek


“Oso lan garrantzitsua egiten duzuelako.”

Oñatitik Lurdesek

irekiz gero, nahi adina modutara jolas egin ahal izango duzue. Hizki larri eta txikiak daude karta bakoitzean, eta berareu lotutako Euskal Herriko animalia bat ere bai.

Horrez gain, kanala ere sortu da interneten, eta bertan material pedagogikoa topatuko dugu, lagungarri: hizkien ahozketasuna lantzeko, ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikusentzunezkoak, animaliak margotzeko materiala, irakurketa-idazketan sakontzeko erremintak...

3 urtetik 7-8 urteko haurrengan pentsatuta sortutako materiala da. Ikaste-txeetan bezala etxean erabiltzeko prestatua. Gure erronka da etorkizuneko irakurle eta idazleak heztea, eta egin dezagun modu jostagarri eta erakargarrian, piztu diezaiegun liburuari edo lumari heltzeko grina eta egin dezagun gure ingurua ezagutzuz eta euskaraz. ●



Basamortu berde jendetsua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ponta das Lajes (Brasil), duela 2.000 urte. Amazoniaren bihotzean bizi ziren gizakiek grabatuak zizelkatu zituzten arroketan, giza aurpegiak irudikatuz.

Brasilgo Amazonia azken 121 urteetako lehorterik larriena jasaten ari da. Ingurumenean eta bertako biztanleengan kalte handiak eragiten ari da lehortea; mugitzeko eta elikagaiak lortzeko ibaiako garraioaren mende dauden mila-kita pertsona inkomunikatuta geratu dira. Baina ur eskasiak eta ibaiaren maila jaisteak ustegabeko berriak ekarri dizkie arkeologoei: orain arte ezagutzen ez ziren lau aztarnategi geratu dira agerian. Ponta das Lajesen, Urucaran eta São Sebastião de Uatumãn arrokan grabatutako irudi antropomorfoak azaleratu dira, eta Anamã hileta-urnak topatu dituzte. Lau aztarnategiak Manaosetik 300 kilometroko perimetroan daude.

Aurkikuntzak aztertzeaz arduratzen ari den Jaime Oliveira arkeologoaren ustez, hain eremu txikian hainbeste aztarna topatu izanak adierazten du oihanaren bihotzean populazioa dentsitate handikoa izan zela. “Ingurunearen ezauzgarriengatik, hemen ez da ohikoa kobazuloak edo aztarnategi monumentalak aurkitzea. Ez daukagu horrelako kokalekurik, baina horrek ez du esan nahi inguru ondo ezagutzen zuten antolamendu sozial konplexurik ez zegoenik”.

Luzaroan pentsatu izan da Amazonian oso gizaki gutxi bizi izan direla, “historia-



EDMAR BARROS

Ponta das Lajesen (Brasil) lehorteak hainbat grabatu utzi ditu agerian.

rik gabeko lekua” izan dela, Oliveiraren hitzetan. Baina egun basamortu berdearen ideia baztertuta dago, eta adituek diote oihan tropikal horretan 9-10 milioi pertsona bizi zirela kolonizatzaileak iritsi baino lehen. Kontinenteko beste hainbat tokitan bezala, biztanleen %90 inguru hil ziren XVI. mendearen amaieran eta XVII. mendean, europarrekin izandako enfrontamentuetan eta, batez ere, haiek ekarritako gaixotasunen ondorioz.

Amazonian ez zegoen metropoli handirik, inken edo azteken lurraldeetan bezala, herrixken kontzentrazio handiak baizik. Oihanean eraikuntzarako harri gutxi dago eta eraikinak material organikoz egiten zituzten. Horrek arkeologoen lana zailtzen du, eta interpretazio okerrak egiteko arriskua handitu. Orain, zoritxarrez, egungo biztanleen bizimodu zailtzen duen hori bera izan da arkeologoen lana erraztu duena. ●



BASILEAKO UNIBERTSITATEA

Neandertal artistak

Duela, 57.000 urte neandertalek lerro mehe batzuk grabatu zituzten La Roche-Cotard kobazuloan (Loiraren bailara, Frantzia), Basileako unibertsitateak *Plo-Sone* aldizkarian argitaratutako azken ikerlanaren arabera. Jean Claude Marquet eta Dorota Wojtczak arkeologoek zuzendu duten lantaldearen ustez, ma-

rra horiek hatzez egin zituzten “modu planifikatu eta egituratuan”, eta, horrenbestez, inoiz aurkitutako grabaturik zaharrenak dira. Ikerlariak oraindik ez dakite grabatuok zer esanahi duten, baina erakusten dute neandertalek arazoiketa sinbolikorako gaitasuna zutela, alegia, lehen artistak izan zirela. ●



Euskal gatazkak gure izaera baldintzatu badu, nola ez dugu gaia jorratuko?

Mikel Iburguren eta Ekain Albite 'Negu hurbilak' Filma

Ez da ohikoa ihesean ari den euskal militante baten ezinegona zineman irudikatzea. Ohikoa ez den moduan, film bat osatzeko Zubietako herritarrak jartzea aktore lanetan. Are gutxiago, zuzendari kategoriaren azpian lau izenekin egitea topo. Esanahiz betetako isiluneekin osatu du Negu kolektiboak *Negu hurbilak* filma, baina Mikel Iburguren eta Ekain Albite badakite hitzak jartzen hura eginez bizi izan duten guztiari.

 LANDER ARRETXEAA BEREZIARTUA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Film labur izateko asmotan hasi zena nazioartean mugitzen ari zareten film luzea da orain. Zer gertatu da bidean?

Ekain Albite: Bartzelonako ESCAC zine eskolako gradu amaierako film labur gisa jaio zen, baina antzeman genuen labur bat baino zerbait gehiago zegoela hor, eta aurre egin behar geniola luze bat egiteak ematen zigun errespetuari. Eskolak ez zuen baimentzen film luze bat egitea, baina lortu genuen haiek eskubideak guri itzultzea, guk nahi genuen bezala jarraitzeko. Ekoiztetxeak sartu ziren gero, eta haiek aurreratutako diruarekin, bigarren grabaketa saio bat egin ahal izan genuen. Sei hilabete eskasean, ikasle-pelikula zena, pelikula profesionala bihurtu zen.

Bidezidorrak aurkitu dituzue, bestela

oso zaila den zerbait egiteko: gaztea izanda eta filmografia oparorik gabe, film luze bat ekoiztea.

Mikel Iburguren: Bai. Filma ez bagenu abiatu ESCACen aitzakian, askoz muga gehiagorekin egingo genukeen topo. Diru gehien materialean inbertitu dugu, 16mm-tan eta analogikoan grabatu dugulako, eta hori ESCACen diruarekin egin genuen. Dena den, hamar laguneko talde bat egon da oso-oso inplikatur, gau eta egun, diruari ia begiratu gabe.

E.A.: Zuzendaritzaren kategorian lau izen agertzen gara, lauok garelako prozesu osoa bizi izan dugunak, baina denera hamar bat laguneko lantaldea egon da gurekin Zubietan, ia bi urtez. Haietako askok hartu dituzte prozesu klasikoago batean zuzendariak hartuko lituzkeen eraba-

kiak. *Negu hurbilak* lagun-talde batek, nolabaiteko determinazio bati segika, egin duen pelikula da. Eta noski, babesten gaituztenen eta Zubietako herritarren harrerari esker egin ahal izan dugu.

16 mm-tan egitearen erabakiak zenbat du estetikitik? Bada egiteko modu bat ere?

E.A.: 16mm-tan grabatzea, hasteko, hau tu estetikoa da. Saiatzen gara estetika arrazionalizatu eta justifikatzen, baina ez da zertan. Bazuen funtzio bat hala ere: pila bat mugatzen gintuela. Eszena bakoitzak grabatu genezakeen, asko jota, bi aldiz; eta sortzen zen giro bat, kontzientzia horretatik, oso berezia. "Ekin" esaten genuenetik moztu arte gertatzen zena oso hil ala bizikoa zen, eta horrek talde guztia



mantentzen zuen erne, momentuarekin konektatuta.

Lehen planoetatik hasi eta azkeneraino, Zubietara oso presente dago. Zergatik Zubietara eta ez beste herri bat?

E.A.: Gutako inork ez zuen lotura pertsonalik Zubietarekin. Euskal Herria bukoliko erromantizatu hori aurkitu nahi genuen. Aritu ginen mugaren inguruetan bila, baina Zubietara iritsi ginen halako batean, eta ikusi genuen erabat isolatuta zegoela, inguruko herriak baino gehiago. Oso interesgarria iruditu zitzaigun horrek sortzen duen guztiari ere begiratzea.

M.I.: Baina Ekain, kontatu ezak historia erreala. Zeinek zabaldu zian bidea? Hire anaiak.

E.A.: [Barrez] Bai, hori ere egia da. Ez genuen herrian inor ezagutzen eta norbait behar genuen kontaktu gisa. Nire anai albaitaria da eta oso ondo ezagutzen du landa-eremua. Hari galdetu nion, eta kontaktu bat pasa zigun, Doneztebekoa, baina Zubietara ondo ezagutzen zuena. Gelditu ginen harekin, eta iristean, bat-batean, arrebak etorri zen haren partez. Zubietara goitik behera ezagutzen zuen, eta berak ireki zizkigun ate guztiak segituan. Lehenengo egunean bertan, gero pelikulan azaldu diren batzuekin egon ginen sagardoa edaten. Covid garaia zenez, gu ginen berrietasun bakarra herrian, eta denek hartu gintuzten gogoz. Oso harreman estua egin dugu. Eszenatoki soila izango zena, pelikularen ezinbesteko elementua bihurtu da. Bai Zubietara, baita zubietarrak ere.

M.I.: Nafarroako Film Comisionekoek argi eta garbi esan ziguten Zubietara ez joateko, ezinezkoa zela bertan grabatu ahal izatea. Baina pelikulak herrian egin duen bidea izugarria izan da. Irtsi ginen asmo narratibo batzuekin, eta herrian sartu ahala, paper guztiak puskatu genituen, berritua hasteko gure asmoak eraikitzen. Herri osoa ezagutu genuen pixkanaka, eta horrela eman diogu forma. Gogorrena izan da ezin izan dugula jende guztia pelikulan sartu.

Nahi izan dute agertu, ordea. Harrigarria da...

M.I.: Esaten genien pelikula bat egingo genuela, baina hiru urteko prozesua izan denez, pelikula beti izan da halako promesa urrun bat, airean zegoena. Gu



Filmeko hainbat fotograma.



egoten ginen haiekin kafea hartzen, bazkaltzen, patxarana edaten.... baina iritsi zen une bat etxez etxe joan behar izan genuela gogorarazten benetan egingo genuela pelikula, hau da, agertu egingo zirela. Beñardo, adibidez, artzainarena egiten duena bigarren zatian, pertsona berezia zen, izan dituen bizipenek lotura dutelako pelikulak kontatzen duenarekin. Eta justu Beñardo zen zalantza gehien zituena. Pixkanaka toki eroso bat sortu genuen, animatu zen arte.

E.A.: Arau antropologiko guztien aurka, komunitate horren parte izan gara gu, eta haiek eman digutena eman nahi izan diegu guk. Materialki oso arraroa zen, katalan batzuk –lan-taldearen zati handia katalana baitzen–, kamerekin, Zubietan egotea. Eta hala ere, konexio oso estua sortu da denon artean.

Mikel, aktore zuzendaria zeu izan zara nagusiki. Jone Laspiur kenduta, gainontzeko aktoreak ez dira profesionalak izan. Nola egin duzu lan haiekin?

M.I.: Aktore lana asko errespetatzen dut, baina iruditzen zait, pelikula honekiko zintzoa izate aldera, ezin genuela beste modu batera egin. Behin ulertzen duzu-

nean non dagoen pelikulak behar duena, ezin diozu heldu zure usteak plasmatzeko nahi itsu horri. Aktore izan edo ez, sortze prozesu batean oso irekita egon behar duzu. Haserre nengoke nire buruarekin, ikusita zein egoera berezia genuen, hori islatzen asmatu izan ez banu.

M.I.: Zinegileak ulertzen duenean bere begien aurrean gertatzen dena interesgarriagoa izan daitekeela buruan duena baino, mundu berri bat zabaltzen zaio. Jende askok nahi du paperean irudikatu duena zehatz-mehatz egitea, baina ikusi genuen gertatzen zena askoz konplexu eta interesgarriagoa izan zitekeela, eta gero guk eraman behar genuela gurera, kamera eta muntaiaren bidez. Adibide bat: bat-batean, Anitak –filmeko pertsonaietako bat– esaten du bizilagunari deituko diola, eta guk erabakitzen dugu grabatzea. Kristoren momentua atera genuen hortik. Eman geniezaiokeen gidoi oso itxi bat eta instrukzio zehatzak Anitari, eta egingo zukeen. Baina hori ez zen gure pelikula izango. Grabatzen hasi eta berehala ikasi genuen ezin genuela gehi-gi fikzionalizatutako zerbait egin.

Jone Laspiur, neurri batean, pantailaren beste aldean egonda

ere, zuen bandokoa izan dela esan daiteke?

M.I.: Erabat. Argi genuen nahi genuela Jone Laspiur bera prozesuaren parte izatea. Eta ez hori bakarrik, behar genuen norbait, barrutik ere, besteak zuzendu eta laguntzeko aukera izango zuena. Aliatu bat, guk behar genuen norabidean tiratzeko. Uste zuen hasieran oso lan konkretu bat egin beharko zuela, baina ulertu zuenean zein zen bere tokia, Zubietara joango zela baina ez entseatzera, baizik eta jendea ezagutzera, baina kontu handiz, lagunegi egin gabe... Hori ulertu zuenean, erabat sartu zen prozesuan. Noski, analogikoak hori du, inork ezin zuen jakin, errebelatu arte, zer aterako zen. Baina nik banekien oso ondo ari zela, eta kritika guztietan asko azpimarratu da egin duen lan ona.

Izkin egin diogu orain arte gaiari, baina *Negu hurbilak* euskal gatatzaren aurpegi bat edo batzuk mahai-gaineratu nahi dituen pelikula da. Iheslari bat eta bere harrera sarea ditu protagonista.

M.I.: Bai. Azken urteetan fikzioan eraiki diren errelatoetatik kanpoko zerbait egiteko beharra eta gooa sentitzen genuen.

Orain arte egin dena begirada morboso eta epiko batekin egin da, idealizazio edo gorroto logikatik. Gu beste toki batetik abiatu gara. Zubietan lan luze bat egin dugun bezala, beste dokumentazio prozesu luze bat egin dugu mugalariekin, ihesean ibili den jendearekin eta abar. Akzio askoko film bat izan zitekeen, baina kontatu digutena ez da hori izan. Zain egotearen eta isiltasunaren minak kontatu dizkigute guri, eta hori izan da guk pelikulara eramán duguna. Hori erabakiorra izan da Laspiurren pertsonaia eraikitzeke, baina baita pelikularen tonua eta energia erabakitzeke ere.

Hala ere, oso gauza gutxi esaten dira protagonistaren ihesaz. Zergatik hautatu duzue anbiguotasun hori?

E.A.: Pelikula oso politikoa eta ideologikoa da, baina politiziazetik urruntzen saiatu gara. Guk gatazka armatuaren amaiera bizi izan dugu, eta pelikula hau 2011n oso kokatuta badago ere, bada 2023tik egindakoa. Gelditu diren arrastoei begira jarri gara. Non dago jende hori? Nola dago gatazka bere azalean bizi izan duen jendea? Isiltasun handia dago hor, eta leku bat eman nahi izan diogu isiltasun horri. Fokua pertsona horien zaurietan jartzea da pelikulari izaera politikoa ematen diona.

M.I.: Batzuetan, mendi osoa argazkitzen saiatzen gara. Guk argazki orokorrago horren zati txiki bati begiratu nahi izan diogu, hautu ideologiko eta artistikoekin egindako puzzlea osatzeko gero. Prozesu aldakorra izan da, kontatu zigutenaren arabera eraiki nahi izan dugulako filma. Horregatik ez da definitzen jone nor den, zer egin duen... Norberak bere interpretazioa egingo du, baina guretzat izaera indefinitu horrek balio du kontatu diguten guztia ordezkatzeko. Oso modu narratibo eta esplizituan kontatzen saiatuz gero, gu



“ ”

16mm-tan grabatzea, hautu estetikoak izateaz harago, funtzio baten adierazle da: pila bat mugatzen gintuen

Ekain Albite

ere erori gintezkeen epika eta halakoe-tan. Eta hori ez genuen nahi.

Deigarria da paradoxa: isiltasunek ardatzen duten film honek berak azaltzen du zergatik ez den gaiak hitz egiten.

E.A.: Noski, oso gauza erreala da isiltasun hori. Ez da lizentzia poetiko bat. Baten batek kontatu zigun, adibidez, etxeko ja-bearekin kozinatzen zueneko momentua

oso berezia zela beretzat, hortik kanpo ez zuela ia kontakturik inorekin. Badu bere azalpena ere: ezin zioten elkarri informazio gehiegi eman, eta harreman estuegia sortu ere ez, arriskutsua izan zitekeelako edo ez zekitelako berriro ikusiko ote zuten elkar. Oso zaila da egoera horretatik harreman bat eraikitzea, baina aldi berean, muga horiekin ere, goxotasuna edo maitasuna adierazteko premia bat badago, komunikatzekoa.

Iheslariaren figura irudikatzen dugunean, ziur asko, lehenago jotzen dugu gizonezko aurpegia jartzera. Zuek beste bide bat hartu duzue.

M.I.: Ez dugu gehiegi pentsatu. Prozesuan egon da pertsona bat, dokumentazio lan horretan markatu gaituena, eta emakumezkoa dena. Eta hortik eraiki dugu hasiera, nolabait. Horregatik ez dugu zalantza handirik izan.

E.A.: Elkarrizketa horrek asko baldintzatu gintuen. Haren bizitza kontatzeko nahia piztu zigun. Naturaltasunez erabakita ere, bada modu bat, hori esatekoa:





iheslariaren irudia ez dela derrigor uste dezakeguna. Eta egia da horrek pelikula asko aldatzen duela. Isiltasun horietan sortzen den putzu sakon hori, iheslaria gizona balitz, desberdina litzateke.

Filmak uzten dituen hutsuneak memoriarekin betetzeko gaitasuna dugu guk, baina filma nazioarteko jaialdietan ari da ibilbidea egiten. Ikusleek ulertu dute?

M.I.: Kezka bagenuen, filma modu jakin batean dagoelako egina, eta hizketagaia dena delako. Herrialde batzuetan ez dute apenas euskal gatazkaren berri, baina hala ere aurkitzen dituzte elementu uni-bertsalak. Badago jendea oraindik ere ihesean zientoka herrialdetan. Pelikulak hitz egiten du horri buruz, porrotarekiko beldurrari buruz, ezinegonaz, itxarroteaz...

E.A.: Locarnoko Jaialdian (Suitza) adibidez, aurreiritzirik ez zutenez, entrega handiagorekin heldu zioten pelikulari. Gaitasuna izan dute kapa batzuk irakurtzeko guk kontzienteki antzeman ez genituenak. Sakonago jotzen dute, ez daudelako baldintzatuta kontakizun baten aurrean duten jarrera bat edo besteagatik. Hori oso ederra izan da. Valladoliden gaueko hamabietan hasi zen solasaldia,

“ ”

Zinegileak ulertzen duenean bere begien aurrean gertatzen dena interesgarriagoa dela buruan duena baino, mundu berri bat zabaltzen zaio

Mikel Iburguren

eta hala ere hogeita hamar lagun geratu ziren, galderak egin eta erantzunak jasotzeko gogoz. Galdetu ziguten ere gai hau zergatik hautatu genuen. Gatazkak gure bizitza eta izaeraren parte bat baldintzatu du. Nola ez genuen ba gai hau jorratuko?

M.I.: Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian, denok gaude sinopsiak ematen duen informazioak baldintzatuta. Batzuetan alde jokatu du, eta bestetan kontra, baina bada muga bat pelikulari begira-

tzeko. Horregatik saiatu gara sorkuntzari eta zinemari ere bere tokia uzten.

E.A.: Ikusleak erabaki behar du nahi duen pelikularen parte izan edo ez. Ez badu parte izan nahi, izango da motela, aspergarria, monotonoa... Baina barruan sartzen bada, irakurketa goitik behera aldatzen da. Pelikulak hutsune asko ditu bete behar direnak, baina ez dira behartuak edo tranpa narratibo soil bat. Hutsune horiek esanahia dute.

Lanak ez du film komertzialen tankerarik. Zinema aretoetan izango da ordea, laster, 2024an.

M.I.: Prozesuan bat-batean konturatu ginen ikasle proiektu bat gainditu zuela gure pelikulak, eta saiatu gintezkeela mundu osoan zehar dauden jaialdietan mugitzen. Harrera ona izan du eta horren ondorioa da gero etorri den guztia. Zorionez, badaude areto asko programazio alternatiboago bat eskaintzen dutenak. Jende asko etorri zaigu *Negu hurbilak* programatzeko gogoz. Pelikula hau ez zen inondik inora sortu zinema aretoetan egoteko bokazioarekin, baina behin honaino iritsita, gure asmoa da Euskal Herri osoan eta Espainiako Estatuko hiriburuetan, gutxienez, erakutsi ahal izatea. ●



BTN 2.0



Bideopodcast erdi serio bat-edo

Edalontzia bezalaxe da, ea erdi hutsik ala erdi beterik ikusten duzun. Umoretik izango du pixka bat, jakina, hiru aurkezle horiekin ezin baita inoiz irtenaldirik baztertu. Baina puntu serioago bat ere eduki nahi du BTN 2.0k. Egosi ahala hornituko da hornitu behar duena. ARGIAren jarraitzaileek bi astelehenean behin izango dute hitzordua *argia.eus*-en.

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA **MANEX MORENO / ARGIA CC BY SA**

Bat, bat-bi, hiru-lau, probatzen, probatzen... Badoa? Bai? Bai. Ea alboko mikro hori. Bat, bat-bi, hiru-lau. Hitz egin gehixeago. Beno, hementxe gaude, euria ari du kanpoan, baina ARGIAren egoitzan gaude gu, goiko pisuan, probak egiten, bat-bi... Ze ederki entzuten den, ez? Jakina, produktuaren tamainakoak izan behar dute baliabideek. Hau 2.0 da. Atzeko panel puska hauek, joño, zeinen eleganteak. "Txikitik eragiten" esango dugu gero. *Badakizu, jende inportante hau etortzen denean programa egitera, maila eman behar.* Ez dute asko behar izan gurera itzultzeko. Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aitzakian etorri ziren lehenbizi, Señora Txapelketa izan zen gero... Zer dute oraingoa? Antzerako zeozer?

Bertsotik "berez" gutxi. Lehen gonbidatua bertsolaria da, edo zen, ez dakit bertsolariek noiz uzten dioten bertsolari izateari... Bertsolaritza aparkatzeko konpromisoa hartu dute, horrela esango dugu. Asmoa da euskal kultur esferako jendea gonbidatu eta aktualitatea jorratzea, horrela, orokorrean esanda, aktualitatea. Urte osorako proiektu bat izango da. Bertsolaritza... Tirria handirik ez diet bertsolariei, baina entzun zaituztet lehen, jakin dut nor izango den lehen gonbidatua... Klausula hori bigarren saiotik aurrera sartzen da indarrean, ala? Hori ere ikusteko dago. Orintxe heltzekoa da gonbidatua.

Txirrinak eten du bi lankideren arteko solasa, eta azkar batean joan dira atea irekitzera. Kirioak dantzan daude arratsalde

euritsuan. Ohikoak izan ohi dira halako urduritasunak, ezohikotik asko duelako ARGIAren plato berrituan egosiko denak, baina aldi berean ohiko jarduna bihurtuko da behin klaketei ematen zaienean. Bi astean behineko ohiko jarduna. Astelehenean *argia.eus*-en. Ordubeteren bueltako iraupena izango duten saio dinamikoak. Soilik platoa izango da egonkorra, eta hiru aurkezleak ere bai, jakina, baina beraien artean txandakatuko dituzte zeregina. Laugarren eserlekua gonbidatuak beteko du. Eta bosgarrena, berriz, kolaboratzaile zirtolariak. Azken horiek ere hiru dira, eta txandaz txanda ariko dira egunerokotasuneko gaiak planteatzen, grazia puntua eta pipermina aldean.

Lehen saioko gonbidatua zelakoan ireki dute erredakzioko atea, baina ez, kolaboratzailea da. Bonboi-kutxa bat dakar besapean. Gabonak izateko aste batzuk falta direla gogorarazi diote, baina lehenbiziko saiorako elementu gisa ekarri du. Irekitzeko tentazio handirik ez da sortu ordea, Errezilgo gozogile baten pastekin eta kafe egin berriarekin ondo ase baitira aurkezleak grabaketa aurreko minutuetan. Gidoiak errepasatu dituzte meriendarekin batera, eta prest dira saioari ekiteko.

Bigarrenez jo du txirrinak. Orain bai: gonbidatua da. Garaiz dator, irribarretsu eta gogoz sumatzen zaio. Agurtu ditu aurkezleak, ezagutzen ziren aurrez, besarkada batzuk eman ditu han eta hemen, eta azkar batean azaldu dizkiote programaren nondik norakoak. Ez dago bereziki urduri. Ohitu samar dago kameran aurrean jartzera, nahiz azken boladan dezentente aritu den kameran atzean. Bere mikrofonoa zein izango den adierazi diote, eta eserlekua hartu dute guztiek. Eroso jarri, kaskoak jantzi eta teknikaz arduratuko diren lankideek buruarekin baietz egin diote Haizeari. Klaketari eman, eta sarrerako testutxoari ekin dio. Hastera doa lehen saioa. Hastera doa *BTN 2.0* bideopodcasts. Gauzak ondo bidean, gurekin izango ditugu datorren urte osoan. ●





LIBURUA

Esan gabekoak, gaizki esanak, berba gehiegikeriak

MADDI GALDOS ARETA

Lausoa du azala Iñaki Irazuren (Asteasu, 1954) azken argitalpenak, zuri-beltza. Halere, lurrean ikusgarri da bide baten arrastoa: noranzko markarik ezean ezin jakin geu izan garen honaino heldu eta atzera begira gaudenak edota, hari segika, norabait heltzeko seinale den aierua. Asteasuarraren ibilbideko bigarrenena den poema-liburu hau, lehen bezala, oroimenaren joan-etorrirako gonbita da: hegei poemak osatzen dute *Zakur zaunkak* (Susa, 2023) izendaturikoa, memorian gordeak izateko aterpe galdegiten dutenentzat hogeiei gotorlekuk.

Gerra Zibila eta gerraostea dira bildumaren ardatzak: Martuteneko kartzela, ukuiluak, Donostiako Gobernu Zibila, Neguriko jauregiak, Salburua landa, hilerrietako lur saildu eta sastraka arteko bazterrak zein bestetzuk topa genitzazke bertan proposatzen den ibilbidean. Oraina iraganarekin lotzen den lekuotan irudi indartsuak mamitzen ditu poetak: sardez zulatutako belar piloak, irentsitako pegatinak, atzapar bat lepoan pausatuta... Gorriaren beroa darie batzuei, metalaren hotza bestetzuei. Norberak bizi gabekoaren memoria sensoriala pizteraino hel daitezken horiez gain, in-

teresgarria da poetak hitzari aitortzen dion garrantzia ere: *Afarian ginela* poema dugu horren adierazle argi.

Azken horrek eragin zuzena du bildumaren osaera formalean. Izan ere, Irazu han-hemenkako istorioen bildumagile lanetan aritu dela esan genezake: bestetzuen esanak eta, are, bestetzuen esaerak ere islatu baititu liburuan; baita irakurleari ezagun izango zaizkionak ere, modu nabarmenean, *Giltza gorri bat* olerkian. Honekin, bada, *ni* poetikoaren aldean beste pertsona markak gailentzen dira poemotan, kutsu narratibodun nolabaiteko testigantzak jasotzen baitira orri-

tan. Oro har, bizitakoaren laztasunari, jasandako errepresioari eta sentitutako minari lotutako isiltasuna arrakalatzen dute bertako boz eta oihartzunek.

Joan-etorriko bidearen antza izateaz gain oroimenak soinuaren islapenaren antza ere badu eta akaso. Antza, behar besteko tartea ezinbesteko da oihartzuna sortu eta lehen noizbait izandako soinuak berriro guretzat entzungarri izan daitezken: "mendian barrena / bidez gabiltzala, / guri heltzeko / ahalik gabe / aditzen dugun / zakur zaharraren / zaunka urruna". Hitzok balio dute tarte hori handitu ahala apurka-apurka iraganera gerturatzeko. ●



SUSA

ZAKUR ZAUNKAK

IÑAKI IRAZU

SUSA, 2023



MIGRATZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

ABENDUAK 11-18

11-22 / Kulturarteko Plaza Feministan
"Migrantas" proiektuaren erakusketa: #hain gertu eta hain urrun...

11-18 / Kulturarteko Plaza Feministan
Memoriaren maindirea

14 / 18:30 Kulturarteko Plaza Feministan
Migrazio-dolua eta Ulisesen sindromea (hitzaldia)

15 / 18:00 Kulturarteko Plaza Feministan
Genero arrazakeria (hitzaldia)

16 / 10:00-12:00 Atsegindegi
Azoka

16 / 12:30 Atsegindegitik hasita
Migratzeko eskubidearen aldeko martxa







MUSIKA

Zapore neutrudun elixirra

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBEn denboraldiaren bigarren emanaldi honetarako, publikoaren titulu gogokoenetako bat oparitu digute. Opera arina argumentuari dagokionez, atsegina eta balio onez betea, eta zoragarria bere baitan duen aberastasun melodiakoari dagokionez.

Hori bera eta askoz ere gehiago da Gaetano Donizettiren *L'elisir d'amore*. Opera zoragarria, interprete egokiek, belarrientzat benetako gozamenaren izan daitekeena, askotan entzun eta ikusi dugun arren.

Oraingo honetan antzeppen on, atsegina baina ez bikainaz gozatzeko aukera izan genuen. Egia esan behar da. Ezer ez zen lekuz kanpo egon, egia da, baina ezerk ez zigun atentzio handirik eman. Hori ere egia da.

Bakarleri onak izan genituen, baina pixka bat gehiago espero genuen haiengandik. Joel Prieto tenore hispaniar-puertorricar gazteak ahots polita du, zalantzarik gabe. Baina arazo tekniko txikiren bat ere badu, bere agudoak argitsuak izatea



E. MORENO ESQUIBEL

eragozten duena. Argi eta garbi nabaritzen zen ahotsaren kolorea aldatu egiten zela erregistro-aldaketetan —erregistro ertaintetik, nahiko atsegina, agudora, kolore desberdinekoa—, eta horrek artifizialtasuna ematen zion interpretazioari, batera laguntzen ez zuena. Bestalde, bere aktuazioa adierazkortasunik gabekoa izan zen. *Una furtiva lagrima* ospetsuan ere, kantua laua eta espero ziren ñabardurarik gabea izan zen.

Elena Sancho Peregek ahots polita erakutsi zuen. Soprano liriko baten tesitura du, xarmagarria, oso kristali-



noa. Hala ere, zabalerarik gabeko ahotsa da berea, nire ustez behintzat. Txiki samar geratzen da. Ahots ederra izanik, ez du antzerkia "betetzen".

Agian gaueko interpretaziorik onenetako bat Pablo Ruiz baritonoarena izan zen, Belcoreren paperean. Abeslariak ahots biribil eta indartsua erakutsi zuen, erraztasunez beteriko interpretazioaz gain. Estreinakoz aritu zen OLBEn, baina publikoa txundituta utzi zuen.

Paolo Bordogna baritono italiarra oso eraginkorra izan zen Dulcamarako paper bufoan. Era berean, Marta Ubieta soprano bilbotarrak freskotasunez bete zuen Giannettaren rola.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Ivan López-Reynosoren zuzendaritzapean, doitu egon zen, baina soinu gehiegikeria batzuekin. Bestalde, 1950eko hamarkadan Italian girotutako ekoizpenak ukitu ezberdina eman zion opera honi, eta, aipatutako gorabeherak gorabehera, gustu handiz ikusi ahal izan zen. ●

Zumaia euskaraz bizitzeko da.





Kanpora bueltan

UXUE GUTIERREZ LORENZO ISAAC FARRÉ

Oholtza gainean, oihal handi baten azpian egitura zurrun baten barruteak antzeman daitezke. Barruan dagoenaren arrastorik ez, ordea. Iluna da oihala; eta ahula, berriz, argia. Forma geometriko definiturik ez duen arren, goialdean agerian uzten du kaiola moduko baten zantzua. Zer ote, ordea, barruan dagoen? Oholtzan azaldu eta berehala hautsi du isiltasuna Xabin Fernandez Zubeldiak: “Zuekin guztiekin... giza immunoeskasiaren birusa”. Eta hantxe azaldu da goitik behera gorritz jantzita kaiola gorriaren barruan gora eta behera Intza Alkainek hezurmamitzen duen BIRUSA.

Metaforarik ez, interpretaziorako apenas tarterik ez eta antzerkian ohi-koak diren hitz joko eta ezkutuko esanahirik ere ez. Zintzo eta ozen, lehen unetik hasi da biluzten ikuskizunaren protagonista: “Xabin Fernandez Zubel-

dia naiz. Abenduaren 24an jaioa. Ezker-rra, homosexuala eta seropositiboa”.

2013ko martxoaren 11n jakin zuen Xabinek seropositiboa zela, telefonoz. Bertatik abiatu du kontakizuna. Antzez-lana hamar urteotan Xabin torturatu duten pentsamenduen errepasso zintzoa eta dibertigarria da. Umorez harilkatu ditu bizipen gordinak. GIBaren eta Xabinen inguruko elkarrizketak gidatzen du kontakizuna, kaiolatik sartu-irtenean dabilzan bitartean. Superazio istorioa da obra, absurdora eramandako errealtate lazgarria. Lotsa, errua, haserrea eta ezjakintasuna. Den-denak pairatu ditu Xabinek azken hamarkadan, eta horien erakustaldia egiten dihardu orain oholtzan. Intza Alkainek gorputzen duen zomorroak, gainera, kontrapuntua egiten dio Xabinen hizketaldiari.

Estigma eta isiltasun itogarria hausteko asmoz abiatu zuen Xabinek *Kanpora*

KANPORA SARTZEN

KONPAINIA: Txalo Produksioak.

NOIZ: Azaroaren 13an.

NON: Mutrikuko Zalerdi kultur etxean.

sartzen antzez-lana. Oso ariketa ausarta egin duela iruditzen zait. Haren esanetan, baita terapeutikoa ere. Taburik gabe hitz egiten du GIBari buruz, gaitzaren inguruko zenbait mito hausteko asmoz. Giza immunoeskasiaren birusa du Xabinek, bai. Garaiz diagnostikatu zioten, ordea, eta ez du IHESA garatu, eta egunero hartzen dituen pilulen ondorioz ezin du birusa transmititu. Horrelako *zaplaztekoak* eta beste zenbait jasotzen ditu ikusleak obrak aurrera egin ahala.

Zurrunbilo emozionalean korapilatuta, bere burutik kanpo sentitu da Xabin azken hamarkadan. Hala aitortu dio publikoari. Barrera askatu du obra honetan, eta kanpora sartzen ausartu da berriro. Ihes egin gabe, IHESik gabe, eta GIBarekin bakeak eginda. Bizitza hankazgoratu zion deitit hamar urteren ondoren, etxearen barnealdetik kalearen kanpoaldera bueltatu da Xabin Fernandez Zubeldia. ●



Hitz gezidunak

ARRETAZ, ARDURAZ ----- JOKO, OLGETA		BIZKAIKO UDALERRIA ----- LOTAN		ISRAELGO LEHEN ERREGEA		HARRI URTUA ----- PERTSONALAREN IZENA		MEMELO, LERDO ----- JATEKO TRESNA		ZATI GUZTIZ TXIKI ----- ANTZEKO, MODUKO	
ZELAN ----- NANOTESLA											
		DAUKA ----- BUREZUR			SAN MARTIN ..., NAFARROAKO UDALERRIA ----- AUTOAK						
						GAITZITU ADITZAREN ERROA ----- SOTIL, APAIN					
UKONDO ----- GABEZIAK								... HARTU, LO EGIN ----- EMAKU-MEAREKIRO HITANOA			
					JAIETAKO TABERNA ----- AIMENTAK					51 ERROMATAR ZENBAKIZ ----- ILARGI FASE	
ITZULINGURU	AHALEGIN, LEHIA ----- APIAKO HERRITAR					IDEIEN MULTZOA ----- ARRUNT, OHIZKO					BORONDATEZ
								IMITAZIO HERTSI ----- DA			
AZPI, BEHE ----- LODI			NOTA MUSIKALEN MULTZO ----- DENBORA MUGATU						ONGI DA! ----- SABELEKO ORBAIN		
					MEATEGI ----- MODU ATZIZKIA						BIGARREN BOKALA ----- ZAREN HORI
GORETSI, TXALOTU ----- PERTSONALAREN ABIZENA							GAIXOTASUNA ----- 500 ERROMATAR ZENBAKIZ				
									BIGUN, EZTI		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			5				8	
1	4					5		9
	2	3					4	
			8	1		4		5
6		1		2	5			
	8					6	7	
3		6					2	4
	1			3				

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Adar moztu.
2. Guztiak.
3. Isatsik gabeko anfibio.
4. Fetua elikatzeko organo.
5. Elizako erlijio irudi.

EBAZPENAK

1. ADAKI
2. DENAK
3. ANURRO
4. KAREN
5. IKONO

4	1	7	2	6	3	9	5	8
3	9	6	7	5	8	1	2	4
2	8	5	1	9	4	6	7	3
6	3	1	4	2	5	8	9	7
8	5	4	9	3	7	2	1	6
9	7	2	8	1	6	4	3	5
5	2	3	6	8	9	7	4	1
1	4	8	3	7	2	5	6	9
7	6	9	5	4	1	3	8	2

N	U	L	O	N	O	K	R	R	E
V	T	V	G	A	T	V	Z	V	A
Z	I	T	E	V	M	E	N	A	G
N	O	B	D	E	A	K	O	R	P
K	L	A	K	O	A	K	O	M	K
I	A	R	I	A	O	E	T	O	I
L	I	V	N	S	O	X	T	K	V
K	A	O	L	O	D	N	O	L	V
I	Z	I	T	V	G	U	U	D	T
T	E	N	O	B				V	T
B	A	K	O	J	A	S		O	I
Z	T	L						G	K

Paula Santos

SARE JOSTUNA



SORMENA LANTZEKO HARIAK

“Josteak ez dit inoiz atentzioa eman, baina behin lagun batek galdetu zidan ea berarekin joan nahi nuen Bilboko Truca Rec tailerrera. Orduetik, gustua hartu nion eta tailerrak ematen eta antzerkirako jantziak egiten hasi nintzen. Baina, gero, tailerra itxi zuten. Uste dut gustua hartu niola joskintzari sarean delako, nire lagun minarekin nagoelako, imajinazioa lantzen dugulako, eta kontzientzia politiko bat dugunez, ez dugulako beste denda batzuetan erosi nahi. Hasieran prakak egin nituen, eta ongi atera zirenez, gitarra zorro bat egiten saiatu nintzen. Hiru hilabetez aritu nintzen, baina lortu nuen”.

“Lagunei, punkiei eta jende nomadagoari esker ikusi dut beste modu batera josi daitekeela”

Emakume eta genero disidenteen artean sareak ehuntzeko asmoz, lagun batekin Hari-harika kolektiboa sortu zuen Paula Santosek. Duela urtebete hasi ziren eta Zeberion (Bizkaia) elkartzen dira josteko. Hala dio Santosek: “Josteko makinarekin edozer sortu daitekeela transmititu nahi dugu”.

✂ OLAIA L. GARAIALE 📷 PELLO MAUDO HERRERO

Zein helbururekin sortu zenuten Hari-harika kolektiboa?

Joskintzaren inguruan zegoen iruditeria aldatzeko eta emakumeen eta genero disidenteen arteko sarea egiteko. Ikusi genuen, adibidez, emakume migratu askok josten dakitela, baina ez dutela lan egiteko edo josteko aukerarik. Horregatik, gure ideia zen denon artean ikasteko eta laguntzeko espazio bat sortzea.

Nolakoa da orain arteko iruditeria?

Hasieran ez zitzaidan erakargarria egiten, uste nuelako oso aspergarria izanzen zela barrena hartzea eta adabatzea. Baina lagunei, punkiei eta jende nomadagoari esker ikusi dut beste modu batera josi daitekeela, eta ez dela bakarrik andreen gauza. Horregatik, transmititu nahi dugu nahi duguna egin dezakegula josteko makina batekin.

Hortaz, bereziki sormena garatzen duzue?

Bai. Hala ere, garrantzitsua da barrena hartzea, adabatzea eta horre-

lako gauzak egitea, jendearentzat lagungarria delako.

Nola funtzionatzen du sareak?

Lehenengo helburua zen Zeberion izatea tailerra, Bilbotik apur bat ateratzeko. Arkulandan dugun lonja ireki, eta han elkartzen gara josteko. Adibidez, joskintzako diplomatura egin duen pertsona bat dagoenez, berarekin kremailerak jartzen ikasi dugu. Asmoa da udalari lokal bat eskatzea tailerrak eman ahal izateko.

Nondik ateratzen duzue material birziklatua?

Jendeak denetarik ekartzen digu. Ongi dagoena Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformakoei edo Karmela espazioko truke gelakoei ematen diegu. Gainerakoa, eraldatzeko erabiltzen dugu. Adibidez, puzgarri enpresa bateko oihalekin gerriko poltsa koloretsuak egin ditugu. Horrelako materiala erabiltzen nuen lehenengo aldia zen.

Zuek animalia jatorriko materialik ez duzue erabiltzen. Uste duzu larruaren erabilera oso zabalduta dagoela artisautzan?



"Ez dugu gure aurpegia erakutsi nahi ez dugulako politikoa pertsonala izatea nahi".

Bai. Larrua lantzea oso zaila da eta gainera espezista da. Ez erabiltzeak erraztasunak dauzka politikoki eta pertsonalki. Tradizio zaharrei oso lotuta egon da larruaren erabilera. Askotan esaten dute asko irauten duela, eta egia da, baina puzgarrien oihala larrua baino indartsuagoa da eta birziklatua da. Gainera, ez dio inori kalterik egiten. Hala ere, gaitza da josteko.

Joskintza punka, autogestionatua eta transfeminista egiten duzue; josteaz gain, proiektu politiko bat dago atzean?

Gure asmoa da proiektua emakumeen etxeetara eta ahalduzko eskoletara zabaltzea. Transfeminismoa hartzen dugu oinarri, uste dugulako elkarri lagunduta eta elkarrenak trukatu gaiza gehiago sortzen direla.

Uste duzu kolektiboa lagungarria izan daitekeela herriarentzat?

Bai, kultura eskaintzen ari garelako. Zerberion gauza asko dauden arren; adibidez, dantza eta hizkuntza klaseak, ez dago artisautzari lotutako gauza handirik. Herriarentzako zerbitzu bat sortu nahi dugu, eta besteak beste, astero konponketa tailerrak egin.

Finantzatzeko gerriko poltsak eta pistola-zorroak saltzen dituzue. Handitzen ari da pistola-zorroen erabilera?

Saltzearen helburua da kolektiborako fondo bat sortzea, zenbait gauza erosi ahal izateko. Material birziklatua erabili arren, beti erosi behar dira gauzak. Normalean pistola-zorroak erabiltzen ditudanez, eta dirurik gabe nengoenez, okurritu zitzaidan bat egitea niretzat. Horretarako, kidearen pistola-zorroarekin patroia bat egin nuen. Orduetik, lagunak eskatzen hasi ziren. Gainera, Euskal Herrian ez dago aukera asko. Oso azoka konkretuetan ikusten dira Hala ere, publikoa oso konkretua da.

Pistola-zorroen ohiko estetikatik ere urrunduzarete. Nahita egin duzue?

Apur bat ausartak izan behar gara. Oso gustuko ditugunez koloreak, eta daukagunaren arabera sortzen dugunez, koloreak sartzen saiatzen gara. Hala ere, *Basati* bilduma lehenengoa zenez, *animal print* estilokoa [animalien azalaren eta ilajearen patroia dute] egin genuen, denek estetika hori jarraitzen dutelako. Ikusi genuen saltzen zirela eta koloretuagoak egiten hasi ginen.

Hortik sortu zen ACAB bilduma?

Bai. Koloredun oihalkiak genituenez, *ACAB All Colours Are Beautiful* bilduma sortu genuen. Duela hiru urte COVID-19aren ondorioz jarritako isun batzuk ordaintzeko eta erresistentzia kutxa bat egiteko erabili genuen dirua.

Instagram bidez zabaltzen duzue egiten duzuen; erakusleihen bat da?

Bai, horregatik egin genuen; ez daukat beste sare sozialik. Ahoz ahokoa nahia go dugu, baina ez da hain urrun iristen. Hala ere, orain arte oso ongi moldatu gara ahoz aho zabaltzen; herrian erraz piztu da interesa.

Zergatik ez duzue aurpegia erakutsi nahi sare sozial eta hedabideetan?

Bion artean sortzen dugun arren, helburua da jende gehiago etortzea eta kolektibo baten parte izatea. Ez dugu gure aurpegia erakutsi nahi, ez dugulako politikoa pertsonala izatea nahi. Horrez gain, erakutsi nahi dugu edonork eraman dezakeela pistola-zorroa; ez duela zertan punkia, anarko serioa edo pertsona modernoa izan. ●

Kanadako elebitasuna bagenu sikiera

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ausarkeria leporatuko didazue, urrunegi menturatzen ari naizela, han ez zaigula ezer galdu. Nik, hala ere, Axular, Oihenart eta Etxeberry Ziburukoa testigu, zera deklaritzen dut: aurten Euskararen Egunaren bueltako gauzarik inportanteena Ottawan (Kanada) gertatu dela. Sinesten ez badidazue, jarrai nazazue hurrengo paragrafoan kontatzen hasiko naizen historia harrigarrian barrena –edo bestela, *petting* gabeko pin-pan-pun baten bila bazabiltzate, jo zuzenean azken paragrafora, baina gero ez kexatu burmuineko zimurretako frikzioengatik: bazenuten aukera leku berera guri-guri iristeko–.

Hemen zaudete beraz: ah, zer plazera historiak zirri eta mirri bakar bat galdu gabe irakurri nahi dituen jendearekin topo egitea. Ez esan oraintxe testu honen amaieran dabiltzan horiei, baina nire faboritoak zuek zarete. Enfin, harira: Ottawa. Konkretuki, Kanadako hiriburuan dagoen Komunen Ganbera. Rachael Thomas diputatu kontserbadorea herrialdeko Ondare ministroari zerbait esaten hasi da: “Jabetu naiz nire galderei frantsesez erantzuten diezula, baina ingelesez erantzuten diezula ingelesez egindako gainontzeko galderei, zure alderdikide liberalek eginak badira”. Egoera oraindik lasaia zen. Thomasek ildo sakondu zuen arte: “Kontzienten naiz zure aukera dela oso-osorik, herrialde elebidun batean gaude, baina zure aldetik posible balitz, eskertuko nuke...”. Eta ezin izan zuen esaldia bukatu: mundu guztia hasi zitzaion builaka eta protestaka, elebitan gainera: “*That’s not appropriate!*”, “*c’est ridicule, ça !*”. Oilategi parlamentario hura pixka bat baretu zenean –tira, “oilategi”; hitz egiteko modu bat da: Kanadakoak ez dauka zerikusirik parajeotako gainan-



Rachael Thomas diputatu kontserbadore kanadarrak polemika piztu du berari ingelesez zuzentzeko eskatu duelako.

tzezpenarekin, hura Europa da. Bueno, ez, baina ulertzen didazue–, baretu zenean, diot, tonu mingotsak nagusitu ziren: “Iraingarria da quebecarrentzat eta frankofonozentzat”, kritikatu zuen Martin Champoux Bloc Québécois-eko diputatuak. Pascale St-Onge Ondare ministroari ere “oso desegokia” eta “oso gutxiesgarria” iruditu zitzaion oposizioko diputatuak formulatzeke utzi behar izan zuen eskaria. Ukitu ezin den zerbait zarakatu zuela jabeturik, Thomasek ofizialki barkamena eskatu zuen azkenerako.

Laburbilduz: Kanadan elebitasuna konfiantzazko web batean enkargatu zuten, ezin zaio ordezkari publiko bati eskatu bi hizkuntza ofizialetako bat erabil dezala eta ez bestea. Aldiz, hemen daukagun elebitasunak AliExpresen eskatua dirudi: argazkian itxura

ona zeukan, baina etxera iritsi den paketea ireki eta “*bilingüismo*” botoia sartzatzean “*no te entiendo*” esaten du; topera jarrita nola funtzionatuko lukeen ere ez dakigu, euskaraz primeran egin dezaketzen politikariek ez baitute aukera baliatzen; eta ez dirudi mohikano batzuk kenduta inori asko axola zaionik: abenduaren 3a iristen da, momentuko *hype*-a euskal aholaren gainean surfeatzen da –aurten adimen artifizialari tokatu zaio– eta hurrengora arte. Ai, XVIII. mendean haizeei, korronteei eta baleei segika lur haietan, Louisbourgen-eta bukatu zuten euskaldunek zeozer gehiago eutsi izan balute, iritsi izan balira mende honetara populazio kokor batekin: agian orduan, ozeanoaz bestaldean behintzat, kontzeptuari justizia egiten dion elebitasunaz gozatu ahalko luke euskaldunak. ●

Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau
asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekin Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxo Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu
hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora
mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa,
azkartasuna eta ezagutza
bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25€**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

A

**POBREZIARI HOBETO AURRE EGITEA
ETA OPAROTASUNA PARTEKATZEA**

B

**BERDINTASU-NAREN ALDE ETA
DISKRIMINAZIOA SAIHESTEKO
GEHIAGO EGITEA**

C

**HONDAKINAK MURRIZTEA, ENERGIA
GUTXIAGO KONTSUMITZEA ETA
GEHIAGO BIRZIKLATZEA**

**EZER EZ DA ALDATZEN
EZER ALDATZEN EZ BADUGU**